

EUSKADI BASQUE COUNTRY



E

EUSKADI BASQUE COUNTRY ESTRATEGIA

JARDUEREN JARRAIPENA

2018 URTEA

2019ko ekaina

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	2
1 SARRERA	5
2 JARDUERAREN AZTERKETA NAZIOARTEKOTZEKO BEKTOREEN ARABERA	10
2.1 1. bektorea: “Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzea”	14
2.2 2. bektorea: “Interes sektorialak suspertu eta bultzatzea”	17
2.3 3. bektorea: “Garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen laguntzea”	21
2.4 4. bektorea: “Europaren proiektuari laguntzea”	24
2.5 5. bektorea: “Ezagutza atzitzea”	28
3 JARDUERAREN ANALISIA EREMU TEMATIKOEN ARABERA	32
3.1 Kanpo harremanak.....	32
3.2 Enpresak Nazioartekotzea.....	34
3.3 Kultura	35
3.4 Turismoa.....	36
3.5 Garapenerako lankidetzak	37
3.6 Kirola	38
3.7 Gobernu irekia.....	39
3.8 Bizikidetzak eta Giza Eskubideak	39
3.9 Berdintasuna	40
3.10 Lana	41
3.11 Zientzia, teknologia eta berrikuntza.....	42
3.12 Energia.....	42
3.13 Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	43
3.14 Azpiegiturak eta garraioak	44
3.15 Enplegua.....	44
3.16 Gizarte politikak	45
3.17 Ingurumena.....	46

3.18	Lurralde politika	47
3.19	Etxebizitza	47
3.20	Ogasuna eta ekonomia.....	48
3.21	Hezkuntza.....	49
3.22	Lanbide heziketa	50
3.23	Unibertsitateak eta ikerketa	50
3.24	Osasuna	51
3.25	Hizkuntza politika	52
3.26	Segurtasuna.....	53
3.27	Justizia	53
4	EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERAKO ANALISIA	55
4.1	Herrialde lehenetsietako jarduera	58
4.2	Herrialde lehenetsietako jarduera	61
5	JARDUERAREN MONITORIZAZIOA.....	63
6	JARDUERAREN ERAGINA.....	65
7	ONDORIO NAGUSIAK	66

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Jarduera eremu geografikoak.....	7
2. taula. Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze jardueraren monitorizazio sistema.....	8
3. taula. 2020ko EBCren adierazleen taula.....	9
4. taula. EBCren Monitorizazio Sisteman zehaztutako tipologia bakoitzaren barruan jarduera nagusi eta lagungarri edo bigarren mailakoaren deskripzioa	11
5. taula. Nazioartekotze jarduera kopurua, sektorearen eta jarduera eremu tematikoaren arabera	13
6. taula. Nazioarteko jardueraren monitorizazio sistema, egindako jarduerak “nagusietan” eta “lagungarri edo bigarren mailakoetan” zatitzen dituenak	63
7. taula. Nazioartekotze jardueren betetze-ehunekoak, 2020ko EBCn ezarritako jomugetan oinarrituta.....	64
8. taula. 2018 urterako 2020ko EBCren adierazleen taula	65

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Jarduera nagusien proportzioa nazioartekotze sektorearen arabera	12
2. irudia. Jardueren proportzioa V1. Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzea sektorearen barruan, jarduera eremu tematikoaren arabera	17
3. irudia. Jardueren proportzioa V2. Interes sektorialak suspertu eta bultzatzea sektorearen barruan.....	21
4. irudia. Jardueren proportzioa V3. Garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen laguntzea sektorearen barruan, eremu tematikoaren arabera	23
5. irudia. Jardueren proportzioa V4. Europaren proiektuari laguntzea sektorearen barruan, eremu tematikoaren arabera.....	28
6. irudia. Jardueren proportzioa V5. Ezagutza atzitzea sektorearen barruan, eremu tematikoaren arabera	31
7. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Kanpo Harremanen eremuan.....	32
8. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Enpresak Nazioartekotzearen eremuan	34
9. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Kulturaren eremuan	35
10. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Turismoaren eremuan.....	37
11. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Garapenerako Lankidetzaren eremuan	37
12. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Kirolaren eremuan	38
13. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Gobernu Irekiaren eremuan.....	39
14. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen eremuan	40
15. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Berdintasunaren eremuan	40
16. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Lanaren eremuan	41
17. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren eremuan.....	42
18. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Energiaren eremuan.....	43
19. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren eremuan.....	43
20. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Azpiegituren eta Garraioaren eremuan.....	44
21. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Enpleguaren eremuan	45
22. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Gizarte Politiken eremuan.....	45
23. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Ingurumenaren eremuan	46
24. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Lurralde Politikaren eremuan.....	47
25. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Etxebizitzaren eremuan	48
26. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Ogasun eta Ekonomiaren eremuan	48
27. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Hezkuntzaren eremuan	49
28. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Lanbide Heziketaren eremuan	50
29. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Unibertsitateen eta Ikerketaren eremuan	51
30. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Osasunaren eremuan	51
31. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Hizkuntza Politikaren eremuan	52
32. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Segurtasunaren eremuan.....	53
33. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Justiziaren eremuan	54
34. irudia. 2018an egindako nazioartekotze jardueren ehunekoak, kontinentearen arabera	55
35. irudia. 2018an egindako nazioartekotze jardueren ehunekoak, herrialdearen arabera	56
36. irudia. 2018an egindako nazioartekotze jardueren ehunekoak, eskualde lehenetsiaren arabera.....	57

1 SARRERA

2020rako Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Euskadi Basque Country Estrategia, aurrerantzean EBC, 2014az gero Euskadi nazioartekotzeko politika bere esparru tematiko guztietan gidatzen duen tresna da, eta bere helburua da «*Euskadi eragile global moduan kokatzea, Europaren proiektua eraikitzen espazio berekia duela, Herrialde kohesionatua, erakargarria eta lehiakorra, bere bakantasunagatik, giza garapen iraunkorraren maila handiagatik aitortua, solidarioa, munduari irekia eta kanpoko euskal gizataldearekin estu konektatua*».

Ikuspen hori, 2017an berraztertu eta eguneratua, nazioartekotze helburu estrategikoen multzo baten bidez gauzatzen da, eta helburu horiek, aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotze jarduera ardatzen duten **nazioartekotzeko bost bektore komunetan** jasota daude:

- V1. Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzea
- V2. Interes sektorialak suspertu eta bultzatzea
- V3. Garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen laguntzea
- V4. Europaren proiektuari laguntzea
- V5. Ezagutza atzitzea.

EBC eguneratu horrek jasotzen duenez, 2018tik aurrera bost bektore horiek Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartean jarduteko **lehenetasunezko hogeita zazpi jarduera eremutan** gauzatuko dira. Eremu horiek modu bateratuan laguntzen dute, bakoitzaren jarduera sektorean eta euren ahalmen, aberastasun eta baliabideen neurrian Euskadi nazioartekotzen, aipatutako bost bektoreak aurrera eramanez. Estrategiak barnean hartzen dituen esparru guztiak honako hauek dira:

1. Kanpo Harremanak
2. Enpresak Nazioartekotzea
3. Kultura
4. Turismoa
5. Garapenerako Lankidetzak
6. Kirola

7. Gobernu Irekia
8. Bizikidetza eta Giza Eskubideak
9. berdintasuna
10. Gobernantza Publikoa
11. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza
12. Energia
13. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura
14. Azpiegitura eta Garraioak
15. Enplegua
16. Gizarte Politikak
17. Ingurumena
18. Lurralde Politika
19. Etxebizitza
20. Ogasuna eta Ekonomia
21. Hezkuntza
22. Lanbide Heziketa
23. Unibertsitateak eta Ikerketa
24. Osasuna
25. Hizkuntza Politika
26. Segurtasuna
27. Justizia

EBCK eremu tematiko horien nazioarteko hedapena orientatzen du Euskadiren kanpo proiektiorako estrategikotzat jotzen diren jarduera **eremu geografiko** batzuetara. Atzerriko euskal interesen funtsezko parte bat biltzen duen lurralde zerrenda bat da, eta Eusko Jaurlaritzak kanpoan hasten dituen ekinbide gehien xede izan beharko luketen lurraldeak dira. Lehentasun ariketa honek ez du esan nahi beste geografia batzuetan sortzen diren edo behar sektorialeiei erantzuten dieten

aukerari muzin egin behar zaienik. Hortaz, 1. taulan Eusko Jaurlaritzarako eta bere nazioarteko jarduerak eta garapenerako lehenesten diren eremu geografikoak, eskualdeak eta herrialdeak aurkezten dira.

1. taula. Jarduera eremu geografikoak

JARDUERA EREMU GEOGRAFIKOAK	HERRIALDE LEHENETSIAK	ESKUALDE LEHENETSIAK
EUROPA	<ul style="list-style-type: none"> • Alemania • Danimarka • Finlandia • Frantzia • Erresuma Batua • Suedia 	<ul style="list-style-type: none"> • Akitania–Iparraldea • Bavaria • Eskozia • Flandria • Gales
AMERIKA	<ul style="list-style-type: none"> • Argentina • Kanada • Txile • Kolonbia • Estatu Batuak • Guatemala • Mexiko • Peru 	<ul style="list-style-type: none"> • Cundinamarca • Quebec • Queretaro • Minnesota • Ternua eta Labrador
ASIA	<ul style="list-style-type: none"> • Txina • Japonia • India 	<ul style="list-style-type: none"> • Jiangsu
AFRIKA	<ul style="list-style-type: none"> • Hegoafrika 	<ul style="list-style-type: none"> • KwaZulu-Natal

Iturria: 2020rako Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Euskadi Basque Country Estrategia

Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioarteko jardueran eragile asko daudenez inplikaturik, EBCK jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema bat ezartzen du. Bere eginkizuna alde batetik, estrategian ezarritako 27 eremuetan burututako nazioartekotze jarduerak batera monitorizatzea da, eta, bestetik, esperientzia zabalagoa duten eta Estrategia bera martxan jartzeko protagonismo handiagoa hartu behar duten eremuen lanaren eragina neurtzea: Kanpo harremanak, enpresen nazioartekotzea, kultura, turismoa, garapenerako lankidetzak eta kirola.

EBC praktikatzearen jarraipenari dagokionez, 2018az gero **Monitorizazio Sistema** berri bat ezarri da, burututako jarduerak sei tipologia desberdinetan sailkatzeko, 2. taulan azaltzen diren bezala.

2. taula. Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze jardueraren monitorizazio sistema

JARDUERA TIPOLOGIA	DESKRIPZIOA
NAZIOARTEKO PROIEKTU ETA SAREEKIKO ELKARLANA ETA PARTAIDETZA	Alde biko edo alde anitzeko nazioarteko proiektuen barruan Euskadik duen protagonismoan eragiten duten jarduerak, eta nazioarteko sareen barruko jarduerak ere bai.
NAZIOARTEKO OSPAKIZUN, ARGITALPEN ETA FOROETAN AKTIBOKI PARTE HARTZEA	Nazioartean garrantzia duten plataformetan, ospakizun, argitalpen edo eztabaidaguneetan parte hartzea Euskadiren protagonismoarekin (antolaketa, erakustokia edo hitzaldia).
ETORKIZUNERA BEGIRAKO EKITALDIETARA/KONFERENTZIETARA JOATEA ETA/EDO ALDE ANITZEKO BILERETAN PARTE HARTZEA	Ekitaldi, bilera eta eztabaidaguneetan ikuspegi prospektibo batekin eta rol protagonistarik gabe parte hartzea.
ATZERRIRAKO BIDAIK ANTOLATZEA	Euskadiren kanporantzko proiektioari eragiten dioten nazioarteko misio, ordezkaritza eta bidaiak antolatzea
ATZERRIKO ORDEZKARITZEN HARRERAK ETA/EDO BILERAK EUSKADIN	Euskadi bisitatzen duten nazioarteko ordezkaritzak hartu, abegi egin eta artatzea.
NAZIOARTEKOTZEAREN ESPARRUAN FINANTZATZEKO ETA DIRUZ LAGUNTZEKO PROGRAMAK BULTZATZEA	Euskadiko nazioartekotze ekosistemako eragileei begira finantzaketa eta diru-laguntza programak martxan jartzea.

Iturria: 2020rako Nazioartekotzeko Esparru Estrategia; Euskadi Basque Country Estrategia

Bestalde, eta Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze jardueraren eragina neurtzeari dagokionez, 2017ko EBC eguneratuak Estrategiaren pisuaren zati handi bat eusten duten eremuen **eragina neurtzeko adierazle multzo bat proposatzen zuen Aginte Taula** baten bidez: Kanpo harremanak, enpresak nazioartekotzea, kultura, turismoa, garapenerako lankidetzeta eta kirola. 3. taulan adierazle horiek zerrendatzen dira, “*Euskadi nazioartekotzearen erradiografia*”-tik datozenak, 2020 arteko eboluzio serieak ezartzeko.

3. taula. 2020ko EBCren adierazleen taula

EREMU TEMATIKOA	ADIERAZLEA	NEURRI UNITATEA	ITURRIA
KANPO HARREMANAK	▪ Eusko Jaurlaritzak izenpetutako nazioarteko akordioak	Kop.	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
	▪ Eusko Jaurlaritzaren partaidetzako nazioarteko sareak	Kop.	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEA	▪ Ondasunak esportatzeko EAeren joera	%	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
	▪ Enpresa esportatzaile erregularrak > (50 K€)	Kop.	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
KULTURA	▪ Euskarako eta euskal kulturako katedra eta irakurletza sareak munduan	Kop.	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
	▪ Parte hartzen den nazioarteko kultura ekitaldiak (lanbidekoen azokak)	Kop.	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
TURISMOA	▪ Gastu turistikoa guztira (hartutako turismoa) BPGd-aren gainean	%	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
	▪ Euskadira heldutako turistak	Kop.	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
GARAPENERAKO LANKIDETZA	▪ Garapenerako lankidetzarako laguntza/BPGd	%	Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia
KIROLA	▪ Olinpiadetan parte hartzen duten euskal kirolariak	Kop.	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Iturria: 2020rako Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Euskadi Basque Country Estrategia

EBC bektoretan, eremu tematikoetan eta eremu geografikoetan egituratzen dela kontuan hartuta, bere jarraipen eta ebaluazio sistemaz gain, **2018 urtean Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak garatutako nazioartekotze jardueren analisi kuantitatibo eta kualitatibo** bat egiten da txosten honetan.

Era berean, eta datuak ikuspegi kualitatiboago batetik lortzeko, bai egindako jarduerarenak bai jardueren jarraipenarenak, **Estrategia egiteratzen pisu handiagoa hartzen duten eremuen arduradunekin elkarrizketak** egin dira.

2 JARDUERAREN AZTERKETA NAZIOARTEKOTZEKO BEKTOREEN ARABERA

Atal honetan **Eusko Jaurlaritzaren sailek eta horietako erakundeek 2018 urtean egindako jarduerari** egin zaien jarraipena aurkezten da, eta EBCn zehaztutako nazioartekotzeko bost bektore komunekin lerrokatuta dauden balioztatzen.

Lehenago esan den bezala, EBCren ikuspena eta haren helburu estrategikoak Eusko Jaurlaritza osoarenak dira, eta **nazioartekotzeko bost bektore komunetan** oinarrituta egiteratzen dira:

- **V1. Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzea**
- **V2. Interes sektorialak suspertu eta bultzatzea**
- **V3. Garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen laguntzea**
- **V4. Europaren proiektuari laguntzea**
- **V5. Ezagutza atzitzea.**

2018an Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak bultzatutako 1.258 nazioartekotze jarduera egin ziren, baina monitorizazio sistemaren barruan “**jarduera nagusi**” moduan **guztira 770** zenbatu dira.

Nagusizat zenbatutako jarduera horiek lotura argia eta zuzena dute EBC Monitorizatzeko Sistemaren barruan ezarritako sei tipologiekin, eta jardueraren muina irudikatzen dute. Gainerako jarduerak “**jarduera lagungarri edo bigarren mailako jarduera**” bezala katalogatu dira, monitorizazio sisteman zehaztutako tipologiarekin erlazionatuta baldin badaude ere, ez dutelako jarduera nagusien garrantzia, edo jarduera nagusi horien jarduera prospektibo edo lagungarriak direlako.

4. taula. EBCren Monitorizazio Sistemaren zehaztutako tipologia bakoitzaren barruan jarduera nagusi eta lagungarri edo bigarren mailakoen deskripzioa

Tipologia	Azpitipologia	Deskripzioa
1. NAZIOARTEKO PROIEKTU ETA SAREEKIKO ELKARLANA ETA PARTAIDETZA	JARDUERA NAGUSIA	Bultzada eta benetako partaidetza, Euskadiren protagonismoarekin, nazioarteko proiektu eta sareetan.
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Nazioarteko proiektu eta sareetan elkarlan puntuala egitea edo gonbidatu moduan parte hartzea, rol protagonistarik gabe, edo sare eta proiektuekin erlazioatutako ekitaldietan edo informazio saioetan partaidetza prospektiboa izatea.
2. NAZIOARTEKO OSPAKIZUN, ARGITALPEN ETA FOROETAN AKTIBOKI PARTE HARTZEA	JARDUERA NAGUSIA	Nazioarteko ekitaldi, ospakizun, eztabaidagune eta argitalpenak antolatzea edo horietan parte hartzea erakustokiarekin, hitzaldiarekin edo argitalpenarekin.
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Ekitaldietan parte hartzeagatik bilerak eta lan saioak egitea, eta euskal presentzia duten baina Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak antolatu ez dituen ekitaldietara joatea
3. ETORKIZUNERA BEGIRAKO EKITALDIETARA/KONFERENTZIETARA JOATEA ETA/EDO ALDE ANITZEKO BILERETAN PARTE HARTZEA	JARDUERA NAGUSIA	Etorkizunera begirako ikuspegiarekin ekitaldietara/konferentzietara joatea eta/edo alde anitzeko sareen bileretan parte hartzea.
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Alde biko bilera puntualetan, etorkizuneko ekintzak prestatzeko bileretan, eta ekitaldi eta konferentziekin erlazioatutako bileretan parte hartzea, eta prestakuntza ikastaroetara joatea.
4. ATZERRIRAKO BIDAIAK ANTOLATZEA	JARDUERA NAGUSIA	Atzerrirako ordezkariak eta misio zuzenak antolatzea.
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Ordezkaritza eta misio zuzenekin izandako bilera puntualak.
5. ATZERRIKO ORDEZKARITZEN HARRERAK ETA/EDO BILERAK EUSKADIN	JARDUERA NAGUSIA	Euskadin atzerriko ordezkarietzi harrera egitea.
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Bileren prestakuntza.
6. NAZIOARTEKOTZEAREN ESPARRUAN FINANTZATZEKO ETA DIRUZ LAGUNTZEKO PROGRAMAK BULTZATZEA	JARDUERA NAGUSIA	Nazioartekotze ekosistemako eragileei begira finantzaketa eta diru-laguntza programak martxan jartzea.
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Europako finantzaketa proiektuetarako hautagaitzak prestatzeko edo informatzeko ekintzak, eta euskal enpresen zerbitzu zorroarekin zerikusia duten jarduerak.


Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Jarduera nagusiak izango dira, nazioartekotze arloko lanaren muina osatzen dutenez, kontuan hartuko direnak bektoreen arabera azterketa xeherako.

Ikuspegi horretatik, eta 770 jarduera hauek oinarritzat hartuz, **V2. Interes sektorialak suspertu eta bultzatzea** da bektore nagusia, 276 jarduera hartuz (%36). **V1. Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzea** ere nabarmentzen da besteen gainetik, 228 jarduera erregistraturekin (% 30). Horien hurrengo, **V4. Europaren proiektuari laguntzea** da 127 jarduerarekin (% 16), eta **V3.**

Garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen laguntzea 74 jarduerarekin (% 10), eta **V5. Ezagutza atzitzea**, 65 jarduerarekin (% 8).

1. irudia. Jarduera nagusien proportzioa nazioartekotze bektorearen arabera



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Eremu tematikoen arabeko bektore analisi batean, **V1. Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzea** bektorean bereziki bereizten dira enpresak nazioartekotzea; turismoa; nekazaritza, arrantza eta elikadura; ingurumena eta lanbide heziketa. **V2. Interes sektorialak suspertu eta bultzatzea** bektorean bereziki garrantzitsuak dira enpresak nazioartekotzea; kanpo harremanak; unibertsitateak eta ikerketa; kultura; eta berdintasuna. Bestalde, **V3. Garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen laguntzea** bektorean bereziki nabarmentzen dira kanpo harremanak; garapenerako lankidetzak; eta osasuna. **V4. Europaren proiektuari laguntzea** bektoreko eremuak kanpo harremanak; enpresak nazioartekotzea; eta lurralde politika dira bereziki gailentzen direnak. Azkenik, **V5. Ezagutza atzitzea** bektoreari dagokionez, enpresak nazioartekotzea; segurtasuna; kanpo harremanak; zientzia, teknologia eta berrikuntza; eta etxebizitza dira nagusi.

5. taula. Nazioartekotze jarduera kopurua, bektorearen eta jarduera eremu tematikoaren arabera

EREMUA / BETOREA	V1	V2	V3	V4	V5	EREMUKO JARDUERA
						NAGUSIAK GUZTIRA
Kanpo Harremanak	26	80	18	53	8	185
Enpresak nazioartekotzea	49	89	6	29	11	184
Kultura	45	12	0	2	0	59
Osasuna	13	5	15	1	1	35
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	16	7	2	4	1	30
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza	1	5	3	7	8	24
Turismoa	20	1	0	0	0	21
Segurtasuna	3	5	2	0	11	21
Ogasuna eta ekonomia	5	8	0	1	4	18
Azpiegiturak eta garraioak	4	3	3	4	4	18
Lurralde Politika	1	2	1	9	5	18
Unibertsitateak eta Ikerketa	0	18	0	0	0	18
Garapenerako lankidetzak	0	1	15	0	0	16
Lanbide Heziketa	11	1	2	2	0	16
Berdintasuna	0	10	1	3	1	15
Ingurumena	12	0	0	0	3	15
Lana	7	7	0	0	0	14
Etxebizitza	1	3	2	0	8	14
Gizarte Politikak	8	2	0	4	0	14
Energia	1	4	3	3	0	11
Enplegua	1	5	0	1	0	7
Justizia	3	1	1	0	0	5
Hezkuntza	0	2	0	2	0	4
Bizikidetzak eta giza eskubideak	0	3	0	0	0	3
Hizkuntza Politika	0	1	0	2	0	3
Kirola	0	1	0	0	0	1
Gobernu Irekia	1	0	0	0	0	1
BEKTOREKO JARDUERA NAGUSIAK GUZTIRA	228	276	74	127	65	770

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2.1 1. sektorea: “Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzea”

“Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzea” 1. sektorea Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektorearen nazioartekotze jardueran bigarren garrantzitsuen izan da 2018an, 228 jarduera izan baititu (guztien % 30).

Bektore hau artikulatzen duen tresna **“Euskadi Basque Country” marka** da, Euskadi atzerrian proiektatzeko dagoen guztion tresna.

Horrela, Euskadi-Basque Country markaren proiektzioa aparteko ezaugarriak dituen Herrialde erakargarri baten irudian oinarritzen da. Edozein euskal agenteren nazioarteko jardueran laguntzeko balioko duen, adosturik eraikitako marka partekatua. Marka hau erakunde mailatik haratago joan behar da Euskal gizartearen baloreak eta Euskal Herriak dituen aktibo kultural, enpresarial eta sozialen hedapenerako erreminta bilakatzeko. Beraz, Euskadiren kanpo irudikapena sustatzen duten eskualderen marketin jarduerari buruz mintzo gara.

Ildo horretan, eta 2018an zehar, Euskadi Basque Country atzerrian nazioarteko foro eta sareen bitartez proiektatu eta posizionatzean egin da lan. Era berean euskal erakunde eta eragile guztiek nazioartean marka erabiltzeko egin da lan.

Markak 2020ko Euskadi Basque Country Estrategia eguneratuaren eta **2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planaren** aurkezpenean rol protagonista izan zuen, Urkullu Lehendakariak aurkeztu zuenean euskal gizartearen ordezkari zabal baten aurrean 2018ko urtarrilean Euskalduna jauregian.

Bektore hau martxan jarriz, lurraldearen berezitasunetan oinarrituriko marka irudi bat finkatzea bilatzen da, aurkezpen txartela eta lehiarako abantaila baita, Euskadik inbertsioak, proiektuak, profesional kualifikatuak eta turistak erakartzeko duen ahalmenean eragin nahi duena.

Kontzeptu honi jarraituz, hainbat eremutatik **nazioarteko entzutea duten azoka, konferentzia eta ekitaldietan parte hartzeko lan handia** egin da, eta horietan Euskadi Basque Country marka munduari erakustokien, hitzaldien edo espazio propioen bidez edo euskal eragileen partaidetzaren bidez erakutsi zaió.

Alde horretatik, **Kulturaren** alorrean, azpimarragarria da Euskadiren partaidetza Belgikako Transposi eta Komiki Azoketan, Different!11 zinema jaialdian, eta Kulturelle Landpartie Alemanian. Ekitaldi hauetan guztietan, Kultura alor desberdinetako eragileek Euskadi Basque Country Markaren laguntza izan zuten.

Kanpo harremanetako sailak, Euskadi Basque Country marka lagundu zuen modarekin lotuta dagoen Paris en Mode Basque Ekitaldian. **Nekazaritza eta Arrantzan** bestalde, herrialde marka proiektatu zen London Wine Fair, Prowein Dusseldorf-en eta Vinisud Parisen (ardoaren sektorea), Seafood Expo Global Bruselan (arrantza sektorea), edo SIAL Paris (sektore anitzeko nekazal elikagaien industriak) azoketan, euskal nekazal industriaren ehuneko kideei babes emanez.

Herrialde marka beste sektore batzuekin zerikusia duten ekintzetan proiektatu zen ere, hala nola industrialean, **Negoioen Nazioartekotasunaren** eremutik koordinatutako ekintzetan, hala nola Breno Makineria Azokan (Txekiar Errepublika), Renewable Energy Indian edo Hannover Messe-n (Alemania) . **Turismo eremutik ere**, Euskadi helmuga turistiko erakargarri gisa sustatu zen mundu osoko turismo ekitaldi nagusietan, hala nola, IBTM – International Business Tourism Market (Bartzelona), WTM – International Travel Trade Show (Londres), JATA – Japan Association of Tourism Agents Expo (Tokio), ITB - Internationale Tourismus Börse (Berlin), edo Salon des Vacances (Brusela).

Azpiegituren eta Garraioaren alorretik, bestalde, Euskadi Basque Country marka nazioarteko inpaktuko ekitaldietara ere eraman zen, hala nola Breakbulk Europe (Bremen), Fruit Logística (Berlin) edo Innotrans (Berlin), sektoreko agenteak promozio ekintza bateratuen bidez sustatzuz, herrialde bereizgarria aterki marka bezala erabiliz.

Beste arlo batzuetatik, marka proiektatzeko jarduerak ere eragina izan zuten atzerrian, ekitaldi, hitzaldi eta azokan bidez, hala nola Tbilisi Open Government Partnership (OGP) Global Summit-en parte hartzea **Gobernu Irekiaren** eremuan; COP24 - Katowiceko Klimaren Gailurra eta San Frantziskon eginiko Global Climate Action Summit **Ingurumenaren alorrean**. ALAMFPYONAF Latinoamerikako Kongresuan parte hartzea - Magistratuen, Funtzionarioen, Profesionalen eta Haurren, Nerabeen eta Familiaren operadoreen Latinoamerikako Elkartean, **Justizia** arloan; edo ORP - Laneko Arriskuen Prebentzioaren eta Aseguruen Naziarteko Kongresua, **Lanaren** alorrean.

Paraleloki, herrialde marka **sareetan** ere zabaldu da, Euskadiren nazioartekotze ekosistemako eragileen expertise arloei lotuta, adibidez Ingurumenean (ENCORE sarea- European Network for Conservation-Restoration Education eta The Climate Group), Kanpo Harremanetan (ORU/Fogar-Organización Regiones Unidas/ Foro Global de Asociaciones de Regiones), Energiari (Ocean Energy Europe), Hizkuntza Politikan (NPLD- Network to Promote Language Diversity), edo Lanbide Heziketan (EARLALL- European Association of Regional & Local Authorities for Lifelong Learning).

Herrialde markari lotutako Euskadiren lurralde erakargarritasuna sustatzeari dagokionez, Kanpo Harremanen, Kulturaren, Nekazaritzaren, Inbertsioak Erakartzearen edo Ogasun eta Ekonomiaren eremuetan burututako jarduerak bereziki nabarmentzen dira.


Kanpo Harremanetatik, marka jarduerak egin dira, esate baterako “Gernikako bonbardaketa” erakusketaren zabalkundea Txilen eta Argentinan, Kirmen Uriberen “Abangoardia maite duen antzinako herria” liburuaren aurkezpena, edo Euskal Diasporaren Eguna ezartzea.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura arloan, Mexikon Arabako Errioxako ardoaz, txakolinaz eta sagardoaz egindako marka sustapena aipatu behar da, nazioartean gutxika ospea lortzen ari den Basque Culinary World Prize sariaren aurkezpenaz gain.

Kulturaren eremuan, bestalde, Herrialde markaren proiektzioa **euskal hizkuntza eta kultura atzerrian sustatzeari** oso lotuta egon da. Europan eta Amerikan lehenetsietako herrialdeak izan dira **Etxepare Institutuak** koordinatutako sustapen ekintza eta jardueren hartzaile: euskarazko irakurle postuak, munduko unibertsitateetako katedrak eta sustapen kanpainak, hala nola, euskararen astea 2018ko Europako Kultura Hiriburuan (Leeuwarden) edo Cannesko Zinema Jaialdiko Euskal Leihoa, adibidez.

Inbertsioak Erakartzea dela eta (Enpresak Nazioartekotzearen eremua), nabarmentzekoak dira Euskadiren aurkezpenak alemaniar, suediar, britainiar edo japoniar enpresarien aurrean; eta Ogasun eta Ekonomia arloan, Fitch Rating, Moody’s eta Standard & Poor’s agentzien aurrean egindako aurkezpenak, Parisen eta Erroman egin zen Euskadi Bonu Iraunkorraren aurkezpenaz gain.

2. irudia. Jardueren proportzioa V1. Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzea bektorearen barruan, jarduera eremu tematikoaren arabera



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2018an, batez ere 1. bektorean eragiten duten jarduerak batik bat **Enpresak Nazioartekotzea, Kultura, Kanpo Harremanak eta Turismo** eremuetatik zuzendu dira, hiruren artean bektore honetara orientaturiko jardueraren % 60 baino gehiago egin dute eta.

2.2 2. bektorea: “Interes sektorialak suspertu eta bultzatzea”

“Interes sektorialak suspertu eta bultzatzea” 2. bektorea izan da 2018an egin diren nazioartekotze ekintzetatik gehien jaso dituen bektorea, 276 ekintza izan baititu, guztien % 36.

Nazioartekotzea Euskal ekonomiaren eta enpleguaren indarberritzearen oinarrietako bat bezala eraikitzen da, beraz Eusko Jaurlaritzak arlo desberdinetan dituen kanpo jardunak: **aukerak hautematera, zubiak sortzera eta euskal ehun sozioekonomikoa osatzen duten agenteen gaitasun produktibo, kultural komertzial eta turistikoari balioa erantzten dieten erramintak garatzean datza.**

Ildo horretan, 2018ko jarduera **erakunde harremanak sustatzera, nazioarteko proiektu eta sareetan parte hartzera eta nazioarteko ekintzetan eta erreferentziako ekitaldietan parte hartzen eragileei laguntza sektoriala ematera** bideratuta egon da.

Euskadiren interes sektorialak bultzatzeko bide moduan erakunde harremanak sustatzeari dagokionez, bai alde anitzeko erakundeekin zein alde biko harremanak sakondu dituen Kanpo Harremanen eremuan egindako lana nabarmentzen da. Ildo honetan, Euskadiren alde biko harremanak **Urkullu lehendakariak lehentasunezko herrialde eta eskualdeetara egindako bidaiak ofizialei esker** indartu dira, esate baterako, Txile, Argentina edo Galesera eginiko bidaiak, eta erakunde ordezkari instituzional garrantzitsuei harrera eginez, besteak beste, Quebeceko Nazioarteko Harremanetarako eta Frankofoniarako ministrordea, Emilia-Romagnako lehendakaria, Risaraldako gobernadorea, Nevadako gobernadorea, Seulgo alkatea, Txileko Etxebizitza eta Hirigintza ministroa, Kolonbiako Lan eta Justizia ministro, Iberoamerikar Gizarte Segurantzaren Antolakundeko idazkari nagusia, Zeelanda Berriko Parlamentuko presidentea, edo Costa Rica, Kazakstan, Israel, Norvegia, Suitza, Georgia edo Eireko enbaxadoreak. Era berean, Euskadira bisita egin zuten, besteak beste, ELGAko ordezkari batzuk (Enplegua), Thane (India) hiriko ordezkari batzuk (Lanbide Heziketa), edo Andorrako Gobernuaren ordezkari batzuk (Hezkuntza). Gainera Kolonbiako erakunde, akademia, enpresa eta komunikabideetako esparruetako pertsona adierazgarriekin Learning Tour bat antolatu zen (Kanpo Harremanak).

Gainera eta hurrenez hurren Berdintasunaren eta Hezkuntzaren eremuetan nabarmendu ziren Emakundek Txileko Emakumearen eta Ekitatearen Ministerioarekin eta Mexikoko Gobernuarekin izenpetutako banakako MoU-ak; eta Eusko Jaurlaritzak eta Kolonbiako Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak izenpetutako asmoen gutuna. Bestalde, azpimarratzekoa da, era berean, Ekonomia Garapen eta Azpiegitura sailburuak Japoniara egindako bidaiak instituzionala, hango merkatuak euskal enpresetarako duen potentziala esploratzera.

Interes sektorialen sustapena ere **nazioarteko proiektuetan** parte hartuz bultzatu da. Euskadi beste herrialde batzuekin lankidetzan aritu da helburu edo esparru jakin batzuetan helburu komunak lortzeko.

Ildo horretatik, **Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura** arloan ondorengo nazioarteko proiektuak garatu dira: LIFE Healthy Forest ("Early Detection and Advanced Management Systems to reduce forest decline caused by invasive and pathogenic agents"), PLURIFLOR ("Arrisku transnazionalen kudeaketa planak arrisku biotiko eta abiotikoen aurrean sentikorrek diren landa basoetarako") edo mugaz gaindiko DANEGAZ egitasmoa, Akitania Berriko- Euskadi – Nafarroa erregioaren eremuko gazta babestuen Jatorri Izendapenen artean berrikuntza sarea sortzeko.

Nazioarteko proiektuetan parte hartze bizia izan duen beste arlo bat **Energiaren arloa** izan da, horretarako proposamen ugari prestatu dira Euskadiren partaidetza sustatzeko, aipatzekoa da

adibidez energia eoliko flotagarriari buruzko 9 herrialdetako 17 bazkidek osatutako patzurgo batean parte hartzeko proposamena, edota OPERA itsas energia berriztagarriei buruzko europar proiektuan parte hartzea.

Proiektuetan lankidetzaz, batez ere Europako esparruan, interes sektorialak sustatzeko ikuspuntutik, **Segurtasun arloan** ere oso presente egon da, POCTEFA MAREA bezalako mugaz gaindikoa lankidetzaz ekimenetan parte hartuz. Ekimen honek itsasoaren mailaren iragarpenaren azterketa du helburu. POCTEFA-ren (INTERREG V-A Spain-France-Andorra Programa) esparruan ere, **Osasunaren alorrean** TESTACOS proiektua abiatu da, animalia bizidunetan antibiotikoen hondakinak azkar detektatzeko tresna analitiko berritzaileak garatzeko.

Modu osagarrian, lankidetzaz eta elkarrizketarako sare eta plataformen bidez alde anitzeko harremanak sendotze eta garatzeak, era positiboan lagundu du Euskadiren interes sektorialak atzerrian sustatzeko.

Perspektiba honekin eta ikuspuntu sektorial batetik, Europako STEM Coalition sarean parte hartzea nabarmentzen da **Unibertsitate eta Ikerketen arloan**; zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika arloak garatzeko helburuarekin.

Beste alde batetik, **Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren** arloan AREPO sarean (Europako Nekazaritza eta Arrantza Jatorriko Produktuen Eskealdean Elkarte) parte hartu izana nabarmentzen da. Sare hau Europako 27 eskualde eta 400 produktore talde baino gehiagoren irudia da, gutxi goira behera Europako Adierazpen Geografikoen ekoizleen ehuneko 40-a baino gehiago aintzuzen ere.

Etxebizitza bezalako alorrean ere alde anitzeko plataformetan parte hartu du Euskadik. Bertan, E2B – Energy Efficient Buildings, eta ECTP – The European Construction, built environment and energy efficient building Technology Platform, bezalako Europako plataformetan esku hartu du.

Elkarbizitza eta Giza Eskubideen esparruan, oso modu aktiboan parte hartu da giza eskubideen defendatzaileen aldi baterako lekualdatzerako Europar Batasuneko Plataforma Globalean. Horretarako, bere bizimodua edo osotasun fisikoa mehatxatuta daukaten beste herrialdetako giza eskubideen defendatzaileak babestea helburu duen Euskal programa aurkeztu zen. Programa honek duen helburua pertsona hauei babesa ematea da Euskadin aterpea emanez.

Energia eta Lanbide Heziketaren arloei dagozkien interes sektorialak ere sustatu dira, bereziki esparru eurparreko alde anitzeko plataformetan izandako presentzia eta egindako jardueren bidez, hala nola Ocean Energy Europe industria erankundean (Energia), EfVET – “European Forum of


Technical and Vocational Education and Training” (Lanbide Heziketa), non Euskadik nazioartekotze eta industria 4.0 talde tematikoen lidergoa duen, Herbehereak eta Finlandia zentroekin batera.

Euskal eragileak atzerrian proiektatzeari bultzada emateko jarduerak ere bektore honen ildoan daude, bereziki euskal enpresei **Basque Trade Investment – Nazioartekotzeko Euskal Agentziaren Atzerriko Sarearen** bitartez euskal enpresei lagunduz (Enpresak Nazioartekotzearen eremua). Jarduera honen osagarri, gainera, **euskal enpresaburuei eztabaidagune, azoka, biltzar eta minegietan lagundu** zaie.

Mota honetako jardueren adibide adierazgarri gisa, **Negoioen Nazioartekotzearen** arloan, aipagarriak dira ondorengo azoketako partaidetzak: Smart Factory Expo (fabrikazio aurreratua, Liverpoolen ospatua), Mexico Aerospace Summit (aeronautika), Smart Cities New York (hiri adimendunak), PAACE Automechanika (automozioa, Mexikon ospatua) edo ECWATECH - Ekonomia Hidraulikoaren Azoka (Errusian ospatu zen). Kasu bakoitzean parte hartzen duten euskal eragileei laguntza eman zitzaion.

Berdintasuna, Kultura, Zientzia, edo Teknologia eta Berrikuntza bezalako beste arlo batzuetan, adibidez, euskal eragileek nazioarteko sustapen ekitaldietan beraien interes espezifikoak bultzatzeko laguntza izan dute. Nabarmentzekoak dira Ekuadorren ospatutako Tokiko Genero Agenden IV. Topaketa Iberoamerikarra (Berdintasuna), Fes’Arts de Libourne jaialdia Frantzian (Kultura) edo Infosecurity Europe (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza), Londonen ospatua.

3. irudia. Jardueren proportzioa V2. Interes sektorialak suspertu eta bultzatzea bektorearen barruan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2018 urtean, batez ere 2. bektorean eragiten duten jarduerak batik bat **Enpresak Nazioartekotzea eta Kanpo Harremanak** eremuetatik zuzendu dira, hiruren artean bektore honetan egindako jardueraren % 60 gainditzen dute egin dute eta.

2.3 3. bektorea: “Garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen laguntzea”

Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko 17 Helburuen (GIH) ildotik politika publikoak diseinatu, martxan jarri eta ebaluatzean giza garapenaren eta iraunkortasunaren ikuspegiak txertatzea aukera ederra da jokaleku globaleko desfioen ildotik doan etorkizuneko proiektu batean Euskadi nazioarteko erreferentzia izateko maila anitzeko gobernantzaren logikatik. Horregatik, EBCK **Euskadi Basque Country 2030 Agenda** lantzea dauka aurreikusita, euskal politikek GIHeekin duten lerrokapen eta laguntza maila islatuko duena, eta Agenda nazioartean zabaldu eta kokatzea ere bai.

Logika horri jarraituz, 2018 urtean **Euskadi Basque Country 2030 Agenda** bukatu eta aurkeztu da, PNUDe (Nazio Batuen Garapenerako Programa) eta euskal gizarteko sektore guztietako 150 ordezkari parte hartu zuten ekitaldi batean.

Kanpo Harremanen eremutik, euskal gizarteak 2030erako Agendarekin duen konpromisoaren nazioarteko zabalkundea sustatu da **aliantzak eta lankidetzak garatuz eta arloari buruzko ikastaro, jardunaldi eta hitzaldiak antolaketa eta partaidetzaren bidez**. Ildo horretan, New Yorken Nazio Batuen High Level Political Forum-en parte hartu izana nabarmentzen da, Eusko Jaurlaritzak ahotsa izan baitzuen GIHa lortzeko maila anitzeko gobernantzaren garrantzia azpimarratzeko, eta 2030 Agendarako euskal ekarpena aurkezteko.

Bektore horren barruan sartzen dira ere, lurralde dimentsioa sustatzera eta mundu mailako erronka nagusiak euskal mailara egokitzea bideratutako **nazioarteko sareetan parte** hartzeak. Adibide moduan, eta **Garapenerako Lankidetzaren** eremuan, Euskadi PLATFORMA sarean sartu da, tokiko eta eskualdeetako 30 gobernuen koalizio pan-europarra, garapen iraunkorrerako nazioarteko lankidetzarako elkarte garrantzitsuak eskaintzen dituena.

Bestalde, gobernu-arlo desberdinetako kideek **nazioarteko proiektuetan parte hartzeak** bektore honen inguruan ahalegin ugari bideratu ditu. Batzuetan hori lortzeko, beste eragile batzuekin aritu dira, batez ere, sektore pribatuko eta akademikoetakoekin.

Osasunaren arloa oso aktiboa izan da zentzu honetan, ongizatea hobetzearekin eta bitzta osasuntsuagoa sustatzearen inguruko nazioarteko proiektuetan parte hartuz. Adibidez, "When Emergence Medical System Erase Borders" proiektuaren bidez, Europako Mugako Eskualdeen Elkartek (Association of European Border Regions) kofinantzatutako proiektuan, mugako eskualdeen arteko alde biko akordioak egiteko esparrua sustatu da. Alor horretako beste proiektu batzuen bidez, esaterako, ONCONAEN edo TRAIN- en bidez, Euskadi Europako testuinguruan minbiziaren ikerketan erreferentziazko lurralde gisa kokatu da.


Gainera, **Nekazaritza eta Arrantza** arloan parte aktiboa hartu da ERANET SusAn proiektuan, animalien ekoizpen iraunkorrarekin lotuta; eta **Etxebizitzaren** arloan, BIM-SPEED proiektuan euskal partaidetzarekin, Europako eraikinen errehabilitazioan eraginkortasuna hobetzen lagundu da.

Halaber, eta bektore honen barruan, aipagarria da **Garapen Lankidetzaren** eremutik burutzen den jarduera bizia. 2018an, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria aurkezten da. Atari hau Euskadin garapenerako lankidetzaren publikoaren ikuspegi orokorra (konpromisoak, proiektuak, aurrekontua eta kokapen geografikoa) ahalbidetzen duen ekimena da.

Arlo honetan ere, **euskal proiektu eta eragileei laguntzak eskaini zaizkie**, hala nola garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko beka, edo Nazio Batuen sistemaren nazioarteko erakundeetako lankidetzan diharduten lankideei emandako laguntzak.

Azkenik, nabarmentzekoa da bektore honi lotutako alde **anitzeko harremanen** sustapena, lurraldeen arteko lankidetzak bultzatzeko eta erronka globalak konpontzen laguntzeko. Aipatu daiteke, besteak beste, UN WOMEN-ekin berdintasun arloan mantendutako harremanak, datozen urteetarako arlo honetan lankidetzak aukerak aztertzeko.

4. irudia. Jardueren proportzioa V3. Garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen laguntzea bektorearen barruan, eremu tematikoaren arabera



Iturria: Geuk egin Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2018an, batez ere 3. bektorean eragiten duten jarduerak batik bat **Kanpo Harremanak, Osasuna eta Garapenerako Lankidetzak** eremuetatik zuzendu dira, hiruren artean bektore honen barruan egindako jardueren % 60 baino gehiago egin dute eta.

2.4 4. bektorea: “Europaren proiektuari laguntzea”

Laugarren bektorerantz orientaturiko ekintzak aplikatuz, **Europar Batasunaren barruan Euskadiren eta bere eragile sozioekonomikoen partaidetza** areagotu nahi da, nazioarteko euskal harremanen lehentasunezko gunea.

Nazioarteko erakundeekiko harremanei dagokienez, Europaren esparruan Lehendakariak **Eskualdeen Batzordeko buruarekin** izan zuen bilera nabarmentzen da.

EBren etorkizunari buruzko hausnarketa baten testuinguruan, EBCK Euskadik Europaren proiektua eraikitzen eta zehazten parte hartzea lehenesten du, bereziki bere intereseko gauzak erabakitzen diren lekuan. **Europaren politikak zehazten eta konfiguratzen euskal rola indartzea** da helburua, hango erabakiguneetan, programetan eta proiektuetan agerpen handiagoa izatea.

Bektore honetan garrantzi berezia du **Kanpo Harremanen** erremuak, horren 2018-2020 aldirako Planean (KHP) **“Euskadiren presentzia indartzea Europan”** izenburupeko bigarren helburu bat garatzen baita, eta Euskadik Europar Batasunaren erabakitze prozesuetan parte hartzea indartzera eta euskal eragileek EBren proiektu eta ekinbideetan parte hartzea erraztera bideratutako ekintza ildoak jasotzen baititu.

2018. urtean, ekintza nagusi gisa bereziki aipagarria da **Europaren Etorkizunari buruzko Euskal Ikuskera** onartzea, Jean-Claude Juncker Europako Batzordeko presidentek Europaren Etorkizunari buruz abiarazitako kontsultaren esparruan. Dokumentu honek Euskadik Europar Batasunaren etorkizunari buruz duen ikuspegia jasotzen du, gero eta globalizatuagoa dagoen testuinguru batean, eta interdependentziak eta arrisku globalei erantzun komunak emateko beharra ezaugarri dituen. Aldi berean, Europa, balio humanista sendoetan oinarrituta, bakean eta askatasunean aurrera egiteko aukera emango lukeen eraikuntza federal gisa ideiatu zuten aitzindari euskaldunak oharatu nahi ditu.

Era berean, legegintza-eskumenak dituzten EBko beste eskualde batzuekin **“Legegintzako Gaitasuna duten Eskualdeen Jarrera Bateratua”** prestatu da. Honela, EAE, Brusela hiriburua, Flandria, Nafarroa, Piamonte, Salzburgo eta Galesko gobernuek, posizio bateratuaren sinatzaileek, maila anitzeko gobernantza eraginkorra eskatzen dute. Gobernantza horretan RLEG-ek, erantzukizun partekatua hartuko dute integrazio-prozesuan, subsidiarotasun eta

proporzionaltasun printzipioen dimentsio deszentralizatuen aplikazio zehatza ere bermatuko duena, eskualde elkartuei buruzko Lamassoure txostenaren gomendioak barne. Nabarmentzekoa da halaber, eraldaketa ekonomikoaren eta arrakasta faktoreen euskal esperientziaren aurkezpena Europako Parlamentuan.

Horrela, Euskadiren ahotsa sustatu da Europako erakundeetan. Horri dagokionez, EBko Kontseiluan parte hartu da, zehazki Ingurumen Kontseiluan, non **Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako** sailburuak esku hartu duen, baita ECOFIN Kontseiluko lantaldeetan ere. Europako Batzordeko Komiteen bileretan parte hartu da, hala nola **Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren** eremuan, Landa Garapeneko Batzordean, autonomia-erkidegoen ordezkari gisa, eta **Azpiegituren eta Garraioen** eremuan, Korridore Atlantikoaren foroetan. Aurrekoari Eskualdeetako Komitean egindako lana gehitu behar zaio, Euskadik zuzenketa ugari aurkeztu baititu bere interesen alde.

Azkenik, Estatuarekin izandako harremanak Europako gaietan, era aktiboan parte hartu da 2018an zehar **Europar Batasunarekin lotutako Gaietako Konferentziako** bileretan (**CARUE**), bai osoko bilkuran zein koordinatzaileekin eginiko bileran, horrez gain bilera bat egin da EBko estatu idazkariarekin ere.

Europar Batasunak 2018an zehar dituen erronkei lotuta, Euskadiren sektore anitzeko interesak defendatzeko lan egin da Erresuma Batua EBtik ateratzeko prozesuaren aurrean. Euskadin eta kanpoan eginiko jardunaldie eta aurkezpenetan parte hartzeaz gain, Eusko Jaurlaritzak 2017az geroztik martxan jarritako Brexit-aren Jarraipen Batzordearen bileren bidez ere egin da.

Euskal eragileek EBko proiektu eta ekimenetan parte hartzeari dagokionez, nabarmendu behar da 2018an zehar jarraipen eta aholkularitza aktiboko lana egin dela Europako proiektu eta ekimenei dagokionez. Honen helburua euskal eragileen partaidetza sustatzea eta babestea izan da, hainbat sektoreren ikuspegitik: Energia, Ingurumena, Kultura, Lanbide Heziketa, Hizkuntza Politika eta abar.

Nabarmentzekoak dira: euskal kooperazio ereduaren kokapena Europar Batzordeko Europako Kooperazio eta Lankidetzaren Estrategikorako ad hoc plataforman; CRPM-ko (Conférence des Régions Périphériques Maritimes) Klima Aldaketen Taldean Ingurumen Sailak aurkeztutako lurralde antolamenduaren bidez klima-aldaketara egokitzeko euskal esperientzia edo Euskadiko baso bioekonomiaren aurkezpena Forest Europe sarearen ekitaldi batean; beste alde batetik, gaztetasunaren dimentsioei buruzko Eskualdeetako Batzordearen biltzarrean parte hartzea Kultura Ondarearen Europako Urtearen esparruan; Migrazioen Europako Foroaren urteko bileran parte hartzea, gizarte zibilaren, Europako erakundeen eta nazio, eskualdeko eta tokiko agintarien arteko migrazioaren inguruko elkarrizketa plataforman;

Kulturaren alorrean bereiztekoa da Europako Parlamentuko "Kultura eta Sormen Industriak / ICCs" intergrupoan parte hartzea Euskal ICC Berritzaileen /KSI Estrategiaren aurkezpenarekin; Gainera, Europar Legebiltzarrak Skane eta Euskadi Europako KSI industrien praktika onen eredu bezala hautatu zituen.

Aipatu beharra dago, Euskadi eta Euskadiko Lanbide Heziketa-a Europako Batzordeak "espezializazio/ heziketa" eta "RIS3/Espezializazio adimentsu" praktika onen eredu gisa aukeratu zituela ere.

Europar dimentsioa Euskadin ere hedatu da, hala: Bilbon Europar Batzordeko RIS3 Plataforma Tematikoen Jardunaldiak antolatuz; Gizarte Gai, Trebakuntza eta Lan Mugikortasuneko Komisarioarekin eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren partaidetza izan zuen Herritarren Elkarrizketaren bidez; edota, Europako EuroBasque Mugimenduaren Euskal Kontseiluari " 2018ko Lagun Onari" bereizketa ematea, maiatzaren 9an, Europaren egunean Lehendakaritzan.

Garrantzitsua da Europako testuinguruan euskal interesak defendatzeko egiten diren beste jarduera batzuk ere nabarmentzea, batez ere Europako **sare eta proiektuetan parte hartzearen bidez**.

Hezkuntza arloan, aktiboki hartu zen parte Standing International Conference of National and Regional Inspectorates of Education-ek (SICI) antolatutako mintegi eta lan taldeetan. Batez ere aipatzekoa da, Belgradon (Serbia) egin zen Batzar Nagusian parte hartzea, kanpoko ebaluazioaren ondorio zuzenen eta efektu kolateralen gainezko biltzarrean.

Energiaren arloan Euskadik zuzentzen dituen SP3Energy, European Batzordeko plataforman, Maritime Renewable Energies eta Smart Grids Partnership- taldeetan eginiko lana nabarmentzen da. Gainera plataforma hauen urteroko konferentzia Bilbo ospatu zen.

Kulturaren arloan, Europako EUNIC sarearen barruan (European Union National Institutes of Cultures), Transposie ekimena eta Fête de la BD-n (komikigintzaren sektoreko azoka) partaidetza sustatu ziren. Kultur arloaren barruan ere, Euskadiren inplikazio aktiboa nabarmendu daiteke NPLD sarean (Network to Promote Linguistic Diversity), Europako beste hizkuntza eta ekimen berrietara irekitzeko proposamenarekin.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren arloan, Euskadik ECSO Lankidetzan (European Cyber Security Organisation) eskualdeen ordezkari izateko hautagaitza aurkeztu zuen. Sare honetan Euskadik aktiboki parte hartu zuen lantalde desberdinetako bileretan (adibidez, WG 5 - Education,

Lanbide Heziketarekin batera) eta zibersegurtasunean espezializatutako euskal “scaleups”-ak babestu zituen saren honen esparruan antolatutako “Business Matchmaking”-etan.


Bestalde, eta **Negozioen Nazioartekotzearen** arloan, ALINNE sarearen (Energy for Energy Research and Innovation) estrategia batzordean parte hartzea nabarmendu da. EENen (European Enterprise Network) sarean ere parte hartu zen, Euskadiren presentzia aktiboa izan zen Sevonako sektore aeronautikoko taldeen bileretan, Innsbruck-eko cluster talde tematikoan, Bilboko ENN Estatuko Partzuergoetan edo Sofian ospatutako Energiaren talde tematikoen jardunaldietan eginiko ekintzak gailenduz .

Era berean, Euskadiren **Europako proiektuetan parte hartzeak** euskal ahotsa Europan sustatzea eta beste lurralde batzuekin erronka komunen inguruko esperientziak trukatzea ahalbidetu du..

Adibide argigarri gisa eta **Negozioen Nazioartekotzearen** arloan, nabarmentzen da Euskadik bere erakunde eta eragileen bidez mugaz gaindiko lankidetzari proiektuetan parte hartzea, esaterako Europako eskualde industrialen arteko lankidetzari buruzko Interreg S34Growth bezalako ekimenetan. Ekimen honen esparruan Rotterdamen ospaturiko koordinazio bileran parte hartu zen eta gainera Hego-Holandara lan misio bat burutu zen bertako berrikuntza sistemari buruz ikasteko. Ikluspegi honetatik ere, Euskadik Interreg ClusterS3 proiektuan paper protagonista izaten jarraitu zuen, espezializazio adimendunarekin lotutako kluster politikak garatzeko; baita berrikuntza ekosistemei buruzko I4MSGO proiektuan, Euskadi eskualdeko Aholku Batzordeko kidea den.

Era berean, eta **Lurralde Politikaren** arloan, Euskadik ESPON proiektuan parte hartu zuen, mugaz haraindiko datuak eraikitze eta hirigintzarako gaie buruz datu kartografikoak elkar banatzeko.

5. irudia. Jardueren proportzioa V4. Europaren proiektuari laguntzea bektorearen barruan, eremu tematikoaren arabera



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2018an, batez ere 4. bektorean eragiten duten jarduerak batik bat **Kanpo Harremanak eta Enpresak Nazioartekotzea** eremuetatik zuzendu dira, hiruren artean bektore honen barruan egindako jardueren % 60 baino gehiago egin dute eta.

2.5 5. bektorea: “Ezagutza atzitzea”

Ezagutza jasotzera orientaturiko ekintzak martxan jarritz, Euskadin garatzen diren politikak optimizatzen lagundu nahi da, beste lurralde eta eskualdetan bildutako esperientziaren eta ezagutzaren bidez. Ikuspegi horretatik, Euskadik eginkizun aktiboa hartzen du bere indarguneak eta ahuleziak abangoardiako herrialdeekin kontrastatzeko gai espezifikoetan, esparru globalean erreferentziatzeko eragile gisa kokatzeko.

Gizarteak eta ekonomiak ezagutzaren inguruan bira egiten duen testuinguru batean, beste lurralde batzuetako esperientzia eta jakituria ikastea onuragarria da Euskadiren hazkunde iraunkorrerako, aberastasuna hobeto banatzeko, etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermatzeko eta euskal gizarteak duen talentua bermatzeko.

Testuinguru horretan, erreferentziatzeko eredu diren herrialde eta eskualdeekin aldebiko harremanak sustatu dira, ardu bide egokiak identifikatzeko eta akordioak egiteko, bai ezagutza lekualdatzeko, bai abangoardiako proiektu eta ekimen bateratuei ekiteko.

Horretarako 2018. urtean zehar, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren parte hartzea bultzatu da **sinposio, mintegi eta foroetan** praktika onak eta ezagutzak geureganatzeko.

Kanpo Ekintzaren arloan, Euskadiren lurralde homologoekin ezagutza trukea hobetu da adibidez, Quebec-eko Nazioarteko Harremanetako eta Frankofoniaren Ministerioarekin langile teknikoak trukatur. Gainera, egungo egoeraren azterketa bat hasi da Eusko Jaurlaritzako teknikarientzat nazioarteko mugikortasun programa bat ezartzeko. Politikak eta lankidetzak aukerak ikasteko jarduerak sustatu dira, bereziki Europako testuinguruan, INTERREG programa europarraren ikaskuntza politiketan parte hartuz.

Bektore honetan oso aktibo dagoen beste arlo bat **Negoioen Nazioartekotzea** izan da. Bertan neurri konkretuak gauzatu dira, esaterako: Kanada-Quebec Ekintza Planaren diseinua, zeinek herrialde honetako sektore espezifikoen (esaterako aeronautika edota sektore bioteknologikoa) esplorazioa egiten duen; edo Cambridgeko Unibertsitatean Innovation Forum eztabaidaren esparruan, Osasun arloarekin batera izandako bilera. Enpresen nazioartekotze esparruan ere laguntza eman zaie Zentro Teknologikoei Horizon 2020 programako proiektuetarako hautagaitzak prestatzeko bazkideak bilatzeari dagokionez. Gainera, jardunaldi eta sinposioak identifikatu dira abangoardiako korronteak eta praktika onak identifikatzeko, esate baterako, Nanjing-en ospatutako Ekologia eta Ingurumen Teknologia Berrien Nazioarteko Gailurrean, edo Medellín-en ospatu zen ANDESCO Kongresuan (Zerbitzu Publikoen eta Komunikazioen Elkarte).

Bestalde, **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren** arloan, Euskal Zibersegurtasun Zentroak, Ariel Unibertsitatera eta Cyberpark berrikuntza ekosistemara (Be'er Sheva) egindako bisita, Europar Ziber Astea (European Cyber Week, Rennes) edo IT_SA Zibersegurtasun Azokan (Nuremberg) parte hartzea. Euskal Herriko Teknologia Parkeen Sareak, bere aldetik, lankidetzak bizia eta nazioarteko ezagutzak biltzeko jarduerak mantendu ditu ere, Iranen ospatu zen IASP Zientzia Parkeen Munduko Konferentzia bezalako ekitaldietan.

Segurtasunaren arloan, bestalde, Alemaniarekin ezagutza trukatzeko bizia mantendu da. Hemen Bavariako gertakari garrantzitsuen antolaketa, kudeaketa eta gainbegiratzeari buruzko polizia adituekin egindako bilera; Ertzaintzaren ordezkari baten egonaldia Baden Wutembergeko Polizia Unibertsitatean; edo Bavariako polizia akademia batzuen bisitak (Fürfeldenbruck, Dachau) aipatzea merezi duela.

Beste arlo batzuek ere bektore hau oso kontuan izan dute bere nazioarteko agendan. **Azpiegituren eta Garraioen** kasuan, Euskotrenek Abiadura Handiko Munduko Kongresuan parte hartzearekin batera, Erresuma Batuko Garraio Ministeriorekin esperientziak trukatu zituen. **Osasunaren** arloan,


Estokolmoko Osasun eta Huzkuntza Sailak bisitatu ziren lankidetzak sustatzeko asmoarekin. **Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura** arloan, Bioekonomia Estrategiaren esparruan, NEIKERek Alemaniako Bioekonomia Klusterra bisitatu zuen; Azkenik Finantza eta ekonomiaren esparruan PX Kongresu Internazional ospatu zen Bilbo, EUSTAT-en eskutik.

Osagarri gisa, sektore honetan kokatutako hainbat ekimenek **talentua jasotzen, trebatzen eta erakartzen** lagundu dute.

Hala, **Kanpo Ekintzaren** arloan, espezializazioko 8 beka eman dira profesionalentzat, eta hauek bai Gasteizko Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian zein Eusko Jaurlaritzak kanpoan dituen delegazioetan burutu dira.

Bestalde, Negozioen Nazioartekotzeko esparruan ere, BEINT eta Global Training bekan deialdia berriak jarri ziren abian. BEINT-bekak unibertsitateko tituludun gazteak nazioartekotzerako dituen programak, nazioarteko enpresak nazioartekotzeko erronkak modu eraginkorren erantzuteko gazte profesionalak hezitzea du helburu. Bestalde, Global Training bekek unibertsitateko goi mailako eta prestakuntza goi mailako profesionala duten euskal gaztei nazioarteko enpresa eta proiektuetan ordaindutako praktikak egiteko aukera ematen du. Hauek bakoitzaren profil akademiko eta profesionalarekin erlazionatutako gutxienezko 6 hilabeteko praktika eskaintzen ditu.

6. irudia. Jardueren proportzioa VS. Ezagutza atzitzea bektorearen barruan, eremu tematikoaren arabera



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2018an, batez ere 5. bektorean eragiten duten jarduerak batik bat **Enpresak Nazioartekotzea, Segurtasuna, Kanpo Harremanak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza** eremuetatik zuzendu dira, hiruren artean bektore honen barruan egindako jardueren % 60 baino gehiago egin dute eta.

3 JARDUERAREN ANALISIA EREMU TEMATIKOEN ARABERA

Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak burututako nazioarteko jardura areagotzea eta sakontzea helmuga hartuta, **nazioartekotzeko helburu eta bektore komunak zabaltzeko 27 eremu tematiko** jasotzen ditu Euskadi Basque Country 2020-EBC Estrategiak.

2018an, beste eremu bat sartu da (Lana), eta ez da nazioartekotzeko jarduerarik egin Gobernantza Publikoaren eremuan; ondorengo analisia gertaera horri egokitzen zaio.


Estrategiak Eusko Jaurlaritzaren aipatutako 27 arloen nazioarteko ekintzak kokatzen eta koherentziaz hartzen ditu. Azken xedea Euskadi *aktore global gisa kokatzea da, Europako proiektuaren eraikuntzan espazio propioa duena, herrialde kohesionatua, erakargarria eta lehiakorra, bere berezitasunagatik aitortua, giza garapen iraunkor maila altua duena, solidarioa, munduari irekia, eta atzerrian dagoen euskal komunitatearekin lotura estua duena.*

Jarraian, labur-labur aztertuko ditugu 2018an arlo tematiko bakoitzean nazioartean egindako ekintza nagusiak

3.1 Kanpo harremanak

Kanpo Harremanen eremua da Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko jardura instituzionalaren arduraduna, haren jardura ildoak 2018-2020 Kanpo Harremanetarako Planean jasota daudelarik. Gainera, sailen arteko koordinazioa eta erakundeen arteko lankidetzak hartzen ditu bere gain, EBC-tik jasotako helburuak lortzeko. 2018an Kanpo Harremanen eremuko jardura **interes sektorialak suspertu eta bultzatzera (V2) eta ondoren Europaren esparruari laguntzera (V4)** zuzenduta egon da.

7. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Kanpo Harremanen eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Interes sektorialen susperraldia eta bultzada **nazioarteko erakunde, herrialde eta eskualde lehenetsiekin alde biko eta alde anitzeko harremanak areagotuz eta finkatuz burutu dira**. Alde horretatik azpimarratzekoak dira Urkullu Lehendakariak Txilera eta Argentinara egindako bidaiak ofizialak, non maila goreneko bilerak mantendu dituen herrialde horietako Presidenteekin. Baita Lehendakariak Galesko Lehen ministroarekin eta Flandriako Ministroarekin izan dituen bilerak, Euskadiren Eskualde Estrategikoen Sarea osatzen duten lurraldeak baitira. Nazioarteko erakundeekiko harremanak ere indartu dira, lotura sendo eta egonkorren sare bat mantendu eta eraikitzeko.

Atzerriko euskal interesak **kanpoko euskal gizataldea bermatuz** suspertu dira, **munduan zehar dauden 193 Euskal Etxeen bidez**. Gainera «Diasporizatu» goiburuaen ildotik, Euskadin Diasporaren ezagutza suspertu da zenbait neurriekin, hots, Euskal Diasporaren Egunaren lehen edizioaren ospakizunarekin edo Diasporaren Artxiboaren sorrerarekin.

Euskadik Europako proiektuari egiten dion ekarpenari dagokionez, EBren erabakitze-prozesuetan Euskadiren parte-hartzea bultzatzera bideratu da jarduera, bereziki Brexit-a edo Europaren etorkizuna definitzea bezalako erronka handiei aurre egin zaien urtean. Testuinguru horretan Euskadik Europaren eraikuntzari lagundu dio Europaren Etorkizunari buruzko Euskal Ikuskera onartuz edo legegintza-eskumenak dituzten Eskualdeen Jarrera Bateratua idatziz. Era berean, jarduera osagarriak egin dira euskal eragileek Europako proiektu eta ekinbideetan parte hartzea suspertzeko, ikuspegi multi sektorial batetik eta modu publiko-pribatuan.

Testuinguru honetan eta Europaren esparruan, azpimarratu egin behar dira Lehendakariak Karl Heinz Lambertz Eskualdeen Batzordeko buruarekin egindako bilerak, eta, bereziki, Europako erakundeetara sailburuen bisiten antolakuntza.

Bestalde, **Euskadi Basque Country markaren proiektzioa**, atzerriko Ordezkaritzek zein Euskal Etxeek antolatutako ekitaldien bidez egin da, esate baterako, Txilen eta Argentinan Gernikako bonbardaketari buruzko erakusketan, edo Bruselako Euskal Astearen lehen ospakizunarekin.


Gainera, garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen lagundu da **Euskadi 2030 Agenda onartuz eta nazioartean zabalduz**, esaterako New Yorken ospaturiko Nazio Batuen High Level Political Forum bezalako ekitaldietan. Foro honetan Euskadik hizpidea hartu zuen Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko maila anitzeko gobernantzaren garrantzia azpimarratzeko, eta 2030 Agendari Euskadik eginiko ekarpenak zehazteko.

3.2 Enpresak Nazioartekotzea

Kanpo Harremanen, Turismoaren, Garapenerako Lankidetzaren eta Kirolaren eremuekin batera, Enpresak Nazioartekotzea Estrategiaren ezarpena oinarritzen den zutabeetako bat da, esparru dokumentuan berean onartzen den bezala.

2018ko ekitaldian zehar, eremu honen barruko jarduera batez ere, **Euskadiren interes sektorialak suspertu eta bultzatzera bideratuta egon da (V2).**

8. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Enpresak Nazioartekotzearen eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Enpresak Nazioartekotzearen eremuan, 2018 urtea **Basque Trade & Investment – Nazioartekotzeko Euskal Agentzia** sortu izanak markatu du; **2017-2020 aldirako Enpresak Nazioartekotzeko Plana** betearazteko tresna da, 2018an Italiako eta Washingtingo bulego berriak erantsiz handitu egin den atzerri sare bat kudeatzen duena.

Euskal enpresarako orientazio argiarekin, dauden programen egokitzapen eta berregokitzapen prozesu integral bat burutu da, eta **Adimen Lehiakorraren Unitatea** sortu da, azterlan sektorialak, Herrialde-txostenak, lantzeaz arduratzen dena, programa eta zerbitzuen eragina neurtzeaz, enpresetarako negozio aukerak erakartzeaz, eta nazioartean jokaera onak ikasteaz arduratzen dena.

Interes sektorialak suspertzeari dagokionez, Indian, Txinan, Frantzian edo Erresuma Batuan Euskadiren **RIS3 Estrategiarekin lerrokatutako nazioarteko garrantzia duten ekitaldietan parte hartu** izana nabarmendu da. Ekitaldi hauetan parte hartzea, era berean, **Euskadi Basque Country markaren proiektioari** lotuta joan da atzerrian, antolatutako mintegi, erakustoki eta jarduera guztietan erabiltzen da eta. Ikuspegi horretatik, erreferentziako ekitaldietan Euskadi Basque

Country erakustoki propioak antolatu dira, esate baterako, Brnoko Nazioarteko Makineria Azokan (Txekiar Errepublika), Renewable Energy India azokan, edo Habanako Nazioarteko Azokan. Gainera, aurrera egin da marka atributu industrialari eta berrikuntzakoari lotzen, Hannover Messe bezalako ekitaldietan.


Europaren eremuan, nabarmentzekoak dira Berlinen edo Londresen **BIND 4.0 programa suspertzeko egindako jarduerak** edo Basque Digital Innovation Hub Bilboko IoT Week-en edo Digital Innovation Hub Day-n Grenoblen (Frantzia) aurkeztu izana. Europaren esparruan ere, proiektu eta sareen barruan lan egiten jarraitu da, horietakoak dira ALINNE aliantza, Interreg ClusterS3 proiektua, Vanguard Initiative edo Interreg S34Growth proiektua.

Beste alde batetik, eta **ezagutza atzitzeari** dagokionez, nabarmentzekoak dira Europako eskualde aitzindarietan foroak, sareak, think tank eta jokaera onen azterlanen mapatze bat egin izana, eta Ekonomia Garapen eta Azpiegitura sailburuak Japoniara egindako prospekzio bidaia, japoniar merkatuak euskal enpresei eskaintzen dizkien aukerak indartzeko.

3.3 Kultura

Kulturaren eremuak funtsezko garrantzia du Euskadi Basque Country markaren bereizgarria delako, eta beste gobernu eremu batzuk nazioartekotzeko aurkezpen gutunaren lana egiten du. Modu koherentean 2018an, eremu honen barruan nazioarteko jardura **Euskadi Basque Country markaren atzerriko proiektuira (V1)** bideratua egon da .

9. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Kulturaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Etxepare Institutuak, euskal kulturaren nazioartekotzeko arduradunak, lau ardatzetan oinarritutako eta Euskadi Basque Country 2020 Estrategiarekin lerrokatua dagoen 2017-2020 aldirako Plan Estrategiko bat dauka.

Kulturaren eremutik, 2018an **Euskadi Basque Country marka** proiektatu da honako jarduera hauetan: Euskaraldiaren sustapenean, euskal film laburraren omenaldian Eskozian, euskal leihoa Canneseko Zinema Jaialdian edo euskararen astean Leeuwardenen, 2018ko Europako Kultura Hirian; erreferentziako konferentzia eta mintegietan parte hartuz, esaterako, Oxfordeko Unibertsitateko “Forum of Iberian Studies” foroan, edo Kalifornia-Santa Barbara Unibertsitateko Verbal Kaleidoscope biltzarrean. Euskadi Basque Country markarekin bat eginda, Etxepare Institututak BASQUE azpimarka garatu du, atzerrira kultura eremuko jarduera subsektorialak eramateko: Basque Audiovisual, Basque Music eta abar.

2018an Kultura sailburuak Quebecera bidaia egin zuen Montrealen euskal ikaskuntzen katedra bat bultzatzeko eta kultura sektorean elkarlan aukerak esploratzeko.


Gainera, ekitaldi honetan **atzerriko unibertsitateetako euskarako katedrak** dinamizatzen jarraitu da (City University of New York, University of Chicago, University of Nevada-Reno, Boise State University, eta University of Massachusetts Amherst, Estatu Batuetan; Johann Wolfgang Goethe Universität Alemanian; University of Liverpool Erresuma Batuan; eta Université Bordeaux Montaigne, Frantzia), eta interes sektorialak suspertu dira zenbait ekitalditan, hala nola, Fest’Arts jaialdian (Frantzia) edo WOMEX – The World Music Expo Tampere (Finlandia) eta Tanzmesse Düsseldorf (Alemania) Dantza Garaikideko azoketan.

3.4 Turismoa

Turismoaren eremua EBC Estrategia hedatzeko zutabeetako bat da, eta tradizioz eremu proaktiboa izan da marka kanpoan proiektatzeko, jasangarritasunaren ikuspegiaretik, bikaintasunezko helmuga espezializatu gisa finkatzeko.

Aurrekoaren ildotik, 2017an eremu honetan egindako ekintzak ia osorik dagozkio **Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzeari (V1)**.

10. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Turismoaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Aurtengo mugari garrantzitsuenak, alde batetik produktu berri bat sortzea izan da, industria-turismoa, eta bestetik familia-turismoa indartzea, Euskadi oportetarako helmuga gisa merkaturatzeko. Ildo horretan eta Euskadi Basque Country markaren gerizapean, suspertu egin da frantsesez, ingelesez, alemanez eta italieraz, eta baliabideen zati handi bat marketin digitalerako erabili da, segmentazio handia egiteko aukera ematen duelako.


Era berean, eta Euskadi Basque Country marka lurraldearen erakargarritasunari lotuta ere sustatuz, **erreferentziako ekitaldietan** parte hartu da, hala nola, Taste of Paris, Taste of London, ILTM, IBTM, WTM, ITB, Holiday World Show, Salon de Vacances de Nantes, Vakantiebeurs eta abar.

3.5 Garapenerako lankidetzaz

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak nazioarteko agenda politikoa pilotatzen du arlo honetan, euskal gizarteak munduan pobrezia eta aukerarik eza pairatzen duten pertsonetikiko duen konpromisoaren eta elkartasunaren adierazgarri.

2018an, eremu honetan egin diren ia jarduera guztiak orientatuta egon dira **garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen laguntzera (V3)**.

11. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Garapenerako Lankidetzaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Izan ere, eremu honetako ikuspegi guztia zuzenean erlazionatuta dago Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH), eta **Lankidetzarako Gida planaren** barruan: Afrikarekiko lankidetzaren indartzea, genero ikuspegiaren indartzea, giza eskubideei laguntzea, edo GIHekin politiken koherentzia bat mantentzea bezalako helburuak sartzen dira.

Testuinguru horretan, 2018an **Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria** aurkeztu da, Euskadin garapenerako lankidetzaren publikoaren multzo ikuspegi bat edukitzeko aukera ematen duena, konpromisoari, proiektuari eta aurrekontuari buruzko informazioarekin.


Garatutako jardueren guztien artean, eman diren laguntasunak eta diru laguntzak nabarmendu dira, esate baterako, genero ekitatearen aldeko antolakuntza aldaketarako prozesuak bultzatzeko lankidetzaren erakundeak, garapenerako lankidetzaren proiektuak, Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeetan ari diren borondatezko lankidetzaren laguntzak, edo ekintza humanitarioetarako laguntzak.

3.6 Kirola

Kirolak Euskadiren atzerriko irudiaren proiektuari laguntzen dio, eta euskal gizartearekin erlazionatutako balioen proiektuari, hala nola, berdintasuna, integrazioa edo tolerantzia.

2018 urtean egin diren jarduerak orientazio argia daukate **Kanpoan Euskadiren interes sektorialak bultzatzerantz (V2)**.

12. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Kirolaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


Eremu honetan, jardueren nagusia **Basque Team Fundazioak** bekak ematea izan da, Euskadin maila handiko kirola sustatzeko eta erreferentzia nazionalak eta nazioartekoak diren ekitaldietan euskal kirolariak babesteko.

3.7 Gobernu irekia

Gobernu Irekiaren eremuak Euskadi Gobernantza Publikoan berritzailea den Europako eskualde gisa finkatzen laguntzen du.

2018an, eremu honetan egindako jarduera nagusia orientatuta dago **Euskadi Basque Country marka nazioartean suspertzerantz (V1)**, kasu honetan, Gobernu Irekiaren printzipioei lotuta.

13. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Gobernu Irekiaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


Ildo horretan, OGP (Open Government Partnership) Euskadi ekinbidearen ordezkariak 2018ko OGP Summit-era joan ziren Tbilisin (Georgia) garatutako lana partekatzeko eta gobernu irekiaren printzipioen defentsako desafioak eztabaidatzeko, Euskadi eremu honetan nazioarteko erreferentziako lurralde bihurtuz.

3.8 Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak

2017-2020 aldirako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak bakea, bizikidetzeta, aniztasuna, elkartasuna eta giza eskubideak defendatzeko nazioarteko esfortzuetako kide izatea helburu estrategikotzat ezartzen du.

Ildo horretan, 2018an egindako jarduerak **Euskadiren interes sektorialak aldeztara (V2)** bideratu dira, nazioarteko erakundeekin eta eremu honekin erlazionatutako ekinbideekin elkarlanerako espazioetan parte hartzeari dagokionez.

14. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


Nazioartean garatutako jardueren artean, nabarmentzekoa da Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Bulegoa bezalako erakundeekin izandako lankidetzak, haren jarduerak finantzatzeko diru-laguntza izendun bat emanez. Gainera, giza eskubideen defentsariak aldi baterako birkokatzeak Europar Batasunaren Plataforma Globalean parte hartzen jarraitzen da, eta zenbait erakunderi diru laguntzak emanez Ekintza Humanitarioaren Ardatzean eta Posizionatzearen Ardatzean euren nazioarteko alderdian ekinbideak garatzen jarraitu da.

3.9 Berdintasuna

Euskadi berdintasunean Europako lehen lau herrialdeen artean kokatzearen, eremu honetatik atributu hori Herrialde-markari erantzeko ari dira lanean, bai eta helburu horretara bideratutako politika publikoko tresnak indartzeko.

2018an eta aurrekoan oinarrituta, eremu honetan egindako jarduerarik gehienak **Euskadiren interes sektorialak suspertzera (V2)** bideratu dira.

15. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Berdintasunaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Emakundetik- Emakumearen Euskal Erakundetik, Txileko Emakume eta berdintasun Ministerioarekin Memorandum baten izenpetzea bultzatu da, bai eta Txileko Familien

Fundazioarekin. Azkenik emakunderi dagokionez, Aipatzekoa da ere Mexikoko Gobernuarekin berdintasunaren arloan sinatutako Memoranduma.


Gainera, **nazioarteko foro eta sareetan** aktiboki hartu da parte, esaterako, Genero Ikuspegia duten Aurrekontuei buruzko Europako Konferentzian Vilnan (Lituania), UN Women-ekiko koordinazio bileran, Emakumearen Kondizio Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordearen 62. Saioan Nazio Batuetan, edo Euro Gender sarean.

3.10 Lana

Lanaren esparruko nazioarteko jardueraren helburua da Euskadi laneko segurtasun, arriskuen prebentzio eta osasuna sustatzeko ekimenetan erreferentziazko lurralde bihurtzea.

2018an lanaren eremuko jardura **Euskadi Basque Country marka proiektatzera (V1)** eta interes sektorialak suspertzera (V2) orientatuta egon da.

16. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Lanaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


Ekitaldi horretan, erreferentziako ekitaldietan hartu da parte, hots, ORP Conference – Laneko Arriskuen Prebentzioaren eta Aseguruen Munduko Biltzarrean, edo PREVENCIA – Iberoamerikako Laneko Arriskuen Prebentzioaren Biltzarrean, besteak beste. Euskal eragileei lagundu ere egin zaie, adibidez, Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Kooperatiben Federazioak asoziazionismo kooperatiboa ezagutzeko Bavariara egin zuen bisitan.

3.11 Zientzia, teknologia eta berrikuntza

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP 2020) erreferentziatzat hartuta, eremu honetatik Euskadiren posizioa indartu nahi da, fabrikazio aurreratu, energia eta bio-osasuneko ikerketa-proiektuetan liderra den Europako eskualde berritzaile gisa.

2018an zehar, eremu honetan egindako jarduerak batez ere ezagutza atzitzera (V5) bideratuta egon dira,

17. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren eremuan




Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Urtean zehar nazioarteko jarduera bizia garatu da zibersegurtasunaren eta Basque Cybersecurity Centre sortu berriaren sustapenaren inguruan, Rennesko European Cyber Week bezalako ekitaldietan edo European Cybersecurity Association elkartearen ekitaldietan. Gainera euskal berrikuntza ekosistemak nazioartearekin konektatzen laguntzen duten ekinbideetan hartu da parte, besteak beste, IASP Workshop edo IASP World Conference of Science Parks, parke industrialen arloan.

3.12 Energia

Esparru horren helburua da Euskadi abangoardiako energia-teknologietan erreferente izateko oinarriak ezartzea, bai eta euskal enpresei laguntzea ere, ekimen berriak sortuz.

18. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Energiaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


Proiektu eta sareetako partaidetza lantzen eta bultzatzen jarraitu da, batez ere Europaren eremuan, adibidez, S3PEnergy – Marine Renewable Energies Partnership, S3PEnergy – Smart Grids Partnership, edo Eskualdeetako Agentzien Europako Federazioa (FEDARENE), urteko bilera Eiren egin zuena. Gainera, erreferentziako ekitaldietan hartu da parte, Wind Europe, edo Gastech konferentzia Bartzelonan, kasu.

3.13 Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura

Nekazaritza, arrantza eta elikaduraren eremuak nazioarteko joera nagusien ildotik doan elikadura sektore errentagarri, berritzaile eta lehiakor bat garatzea du helburu.

2018an, sektore honetako jarduera gehienak **Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzera (V1)** bideratu ziren.

19. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Euskadi Basque Country marka batez ere nazioarteko proiektzioa izan duten ekitaldietan egon da, adibidez, SIAL Paris, NATEXPO azoka, Vinisud, edo Seafood Global, sustapen ekintzetan egoteaz

gain, esaterako, euskal mahasti-ardogintza sektorerako Mexikon egin zena. Gainera, munduari erakutsi zaio 2018ko Basque Culinary World Prize antolatuz eta aurkeztuz.


Beste alde batetik, euskal interesen defentsarako interes estrategikoa duten kanpoko sareetan parte hartzen jarraitu da, esate baterako ERANET SuSAN sarea, abere ekoizpen iraunkorreakoa, edo NEMOR sarea, mendiguneetako ikerketarena.

3.14 Azpiegiturak eta garraioak

Euskadi Europako korridore Atlantikoan puntu estrategiko gisa eta mugikortasun iraunkorren nazioarteko erreferentzia gisa nazioartean proiektatzen ardatzu da eremu hau.

2018an, eremu honetan egindako lana **Euskadi Basque Country marka atzerrian sustatzera (V1)**, **Europaren proiektuari laguntzera (V4) eta ezagutza atzitzera (V5)** bideratuta egon da batez ere.

20. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Azpiegituren eta Garraioaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


Aurreko helburuekin, nazioartean funtsezkoak diren ekitaldietan hartu da parte, adibidez, TOC Rotterdam-en, Breakbulk Europe, edo Intermodal South America, baita nagusiki europar sareetan ere, esate baterako, Community of European Railways, Burdinbide Korridore Atlantikoaren Taldean, edo Euskotrenen bitartez, Nazioarteko Burdinbide Batasunaren (UIC) Abiadura Handiaren Taldean.

3.15 Enplegua

Enplegua Eusko Jaurlaritzaren jarduera politikoaren oinarritzko ardatza da XI. legegintzaldian. Nazioartean, Euskal Enpleguen Zentro Berezien" eredu nazioartekotzearen alde egiten du EBCK.

2018an, enpleguaren barruko jarduerak **interes sektorialak suspertzera (V2)** bideratuta egon dira.

21. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Enpleguaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


Ildo honetan, enpleguaren eta inklusioaren arloan nabarmendu egin behar dira Euskadin egindako kudeaketa ezagutzera etorritako ELGAko ordezkariak bati harrera egin izana, enplegu arloan elkarlanean aritzeko Valentziako Generalitatearekin eta Trentoko Gobernuarekin izenpetutako akordioa, edo kualifikazio urria eta lan merkatuan sartzeko zailtasuna duten pertsonentzako Lanbide Heziketako estrategiak aztertzea bideratuta dagoen Replay Vet proiektuaren aurrerapenak aztertzeke Lanbidek eta Europako zazpi antolakundek egindako bilera.

3.16 Gizarte politikak

EBCK gizarte zerbitzuen euskal ereduak, ekonomia eta gizarte berrikuntza arloko euskal esperientzia, kooperatibismoa, edo aniztasun funtzionala duten pertsonak babesteko politikak edo gurasotasun positiboko politikak nazioartean bultzatzea dauka aurreikusita.

2018 urtean, eremu honetako jarduerak **Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzera (V1)** bideratuta egon da.

22. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Gizarte Politiken eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Eremu honetatik nazioarteko erakundeekiko harremanak areagotu dira harrerak eta topaketak eginez, esate baterako, Suediako Tokiko eta Eskualdeko Agintarien Elkartearekin, euskal osasun eredia ezagutzen interesatuta zegoen Alsaziako ordezkari batekin, Sophie Cluzel Frantziako ministroarekin, edo Uruguaiako gobernuaren ordezkari batekin baten bisita batekin izandakoak.


Euskadiren irudia nazioartean proiektatzeko ekitaldietan parte hartzeari dagokionez, IFICen 18. konferentzia gailendu zen, Internacional Conference on Integrated Care zeritzana, non Euskadik betiON Telelaguntza Publikoko zerbitzuari buruzko komunikazio bat aurkeztu zuen.

3.17 Ingurumena

Enplegua sortzeko eta GIHak lortzeko duen garrantzia ikusirik, ingurumena eremu garrantzitsua da Euskadik atzerrian duen irudia proiektatzeko.

2018an, eremu honen barruan nazioarteko jardura **Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzera (V1) bideratuta egon da batez ere.**

23. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Ingurumenaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Testuinguru honetan, Euskadik parte hartu zuen COP24 gailurrean, eta euskal testuinguruan garatutako klimarekiko ekintzen aurkezpen bat egin zuen, eta COP24 gailurraren aurreko Global Climate Action Summit bilkuran ere parte hartu zuen.


Gainera, ingurumenarekin zerikusia duten sare eta proiektuetan aktiboki hartu da parte, esate baterako nrg4sd, ENCORE edo The Climate Group sareetan, edo Europako Interreg BID-REX eta HORIZON 2020 HISER proiektuetan.

3.18 Lurralde politika

Lurralde politikaren eremuan, nazioartekotzea, esperientzia trukean eta eskualde arteko eta nazioarteko lankidetzan datza, bai eta hiri agendaren definizioaren, garapenaren eta inplementazioaren ingurukoa ere.

2018an eremu honen barruan egindako jarduerarik gehienak **Europaren proiektuari laguntzera (V4)** bideratuta egon dira.

24. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Lurralde Politikaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


Mugaz gaidiko eta nazioarteko lankidetzari dagokionez, ekitaldi honetan elakr ulertzeko memorandum (MoU) bat izenpetu da Pirinio Atlantikoetako Hirigintza Agentziarekin (AUDAP), eta mugikortasun iraunkorrari buruzko METREX sarean hartu da parte, besteak beste, eta Europako proiektuetan, esaterako, ESPON, hiri plangintzako arazoak elkarrekin ulertzeko mugaz gaidiko datuak eraikitzeke. Gainera eta WUF9 – UN Habitat esparru hartuta, NBE Habitateko zuzendari exekutibo berriarekin, Maimunah Mohd Sharif andrearekin, bilera bat egin da.

3.19 Etxebizitza

Euskadiko etxebizitza politikak erreferentziazat hartzen dira atzerrian, batez ere etxebizitzaren kontzeptu sozialarekin erlazionatutakoak, EBC-an jasotzen den bezala, i zan ere, bertan jasotzen da tresna berriak eta jardunbide egokiak sartzea herrialde eta eskualdeekiko harremanen ondorioz, batez ere European.

Ildo honetan, 2018an egindako jarduerarik gehienak **ezagutza atzitzera (V5)** bideratuta egon dira.

25. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Etxebizitzaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


Ildo honetan, Europako proiektuetan aktiboki hartu da parte, adibidez BIM-SPEED, RENEBUILD, ENERPAT SUDOE, biltzar eta ekitaldi garrantzitsuetan ere parte hartzeaz gain, esate baterako, REHABEND biltzarrean. Gainera, azpimarratzekoa da Kolonbiara Eraikunerekin batera egindako misioa, administrazioekin, enprekin eta finantza erakundeekin alde biko bilerak eduki baitziren Euskadira estrapolatzeko moduko esperientzia arrakastatsuak ezagutzeko.

3.20 Ogasuna eta ekonomia

Ogasunaren eta Ekonomiaren eremutik Europako esparruarekin lerrokatutako politika baten alde egin da, 2014-2020 aldirako Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF) Euskal Herriko Programa Operatiboa efizientziaz kudeatzeko helburuz.

2018an, eremu honetako nazioartekotze jarduerak **interes sektorialak suspertzera (V2)** bideratuta egon dira.

26. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Ogasun eta Ekonomiaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Ikuspegi honetatik, parte hartu zen Espainia-Frantzia-Andorra Mugaz gaindiko Lankidetzaren Programaren (POCTEFA 2014-2020) zehaztaperen estrategikorako erabakiak hartzen, Pirinioetako

Lan Komunitatearen Pirinioetako Estrategian, EGEF laguntzak emateko erabakietan eta proiektuen deialdietan (Programazio batzordea), eta 2014-2020 aldirako Euskal Herrirako EGEF Programa Operatiboa pentsatzen eta garatzen Jarraipen batzordearen bitartez, Estatuaren eta Europako Batzordearen ordezkariekin. Gainera, Eusko Jaurlaritzak eta Galesko Gobernuak harremanak estutu zituzten zerga arloan eta industria politikaren arloan sailburuek Galesko Finantza ministroarekin egindako bileretan.


Beste alde batetik, eta **lurralde markaren proiektioarekin** erlazionatuta, beste jarduez gain, Euskadiren aurkezpena egin zen nazioarteko rating agentzia nagusietan (Fitch, Moody's eta S&P), eta Eusko Jaurlaritzak "Euskadi Bonu Iraunkorra" aurkeztu zuen Frantzia eta Alemanian, euskal erakunde batek honelako jaulkipena egiten duen lehen aldian.

3.21 Hezkuntza

Hezkuntzaren eremuko jarduerak, Haur Hezkuntza, oinarrizkoa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ostekoa esparru hartuta, prestakuntza nazioartekotzearen inguruan mugitu dira.

Eremu honetan 2018an garatutako jarduerak batez ere **interes sektorialak suspertzera (V2) eta Europa eraikitzen laguntzera (V4)** bideratu dira batez ere.

27. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Hezkuntzaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Egindako jardueren artean nabarmentzekoak dira Standing International Conference of National and Regional Inspectorates of Education (SICI) elkarteak antolatutako ekitaldi, biltzar eta lantaldeetan parte hartzea, Hezkuntzaren Politika eta Administrazioari buruzko VI. Iberoamerikar Biltzarrean parte hartzea, edo ebaluazio jokoarek buruzko Europako sinposioan parte hartzea, Erasmus+ Proiektuaren emaitza intelektualen zabalkundea egiteko asmoz.


Beste alde batetik, Andorrako Gobernuarekin harremanak ezarri dira, bereziki Ikuskaritza eta Hezkuntza Kalitateko Sailaren arduradunekin.

3.22 Lanbide heziketa

EBCK Lanbide Heziketaren euskal eredua nazioartekotzeari bultzada ematea aurreikusten du, bai eta TKNIKA erreferentzia zentro gisa posizionatzea ere UNESCOren UNEVOC sareko kide onartu dutenez gero.

2018an, eremu honen barruan egindako jarduerak **Euskadi Basque Country marka nazioartean zabaltzera (V1)** bideratuta egon dira.

28. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Lanbide Heziketaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


Ildo horretan, ekitaldietan parte hartu izan da, besteak beste, EfVET (European Forum of Technical and Vocational Education and Training) urteko konferentzian edo WFCP (World Federation of Colleges and Polytechnics) federazioaren nazioarteko biltzarrean, eta parte hartze aktiboa mantendu da EARLALL eta UNESCO-UNEVOC saretan (azken honetan, Bonngo eta Amsterdamgo Innovation Hub-etan parte hartuz). Gainera, euskal expertisaren zabalkundea India, Australia, Panama, Txile edo Costa Ricako ordezkartzen eta irakasleen harreran egin ahal izan da TKNIKAN, edo Suediako Kalitate Agentziaren ordezkartza baten bisitan.

3.23 Unibertsitateak eta ikerketa

EBCK euskal unibertsitateak nazioartekotzea sustatzea aurreikusten du euskal unibertsitate sistemari lotutako nazioarteko Bikaintasun Campusak bultzatzeko ekintzen bidez.

2018an, eremu honetako ekintza guztiak **interes sektorialak suspertu eta bultzatzera (V2)** zuzenduta egon ziren.

29. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Unibertsitateen eta Ikerketaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


Ikuspegi honetatik, euskal ikertzaileak nazioartekotzeko programak bultzatu dira, esate baterako Basque Visiting Fellow programa, Oxfordeko Unibertsitatean ikerketarako egonaldiak finantzatzeko dena, Ikerbasque Research Professor, Research Associate eta Research Fellow programak, doktore ikertzaileen mugikortasun programa (ikermugikortasuna), doktoretza aurreko egonaldien programak (egonlabur), edo doktoretza ondorengo hobekuntza programa.

Horren paralelo, ekitaldi eta sareetan hartu izan da parte, adibidez, University Industry Interaction Conference konferentzian, eta bertan Unibertsitate-Enpresa Estrategia aurkeztu zen, eta EU STEM Coalition sarearen barruan.

3.24 Osasuna

EBCK nazioarteko ikusgarritasuna eman nahi dio euskal osasun ereduari, non pertsonak funtsezko ardatz diren eta gizarte politikak eta osasun politikak integratzen diren. 2018 urtean, eremu honen barruko jarduera **garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen laguntzen (V3)** ardaztu zen.

30. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Osasunaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Ekitaldi honetan, erreferentziako ekitaldietara joan izan da, hala nola MEDICA 2018 Azokara, eta Innovation Forum-en lehen ekitaldia egin da Euskadin, “Building bridges between the technological and the clinical worlds” izenburupean. Gainera, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa IV. Bioosasun Topaketak antolatu dira, eta Frantziatik zetozen ordezkariak, Gizarte Segurantzaren Iberoamerikar Antolakundeko idazkari nagusiaren, eta Eruopa Baztordeko Osasun Zuzendari DG zuzendari nagusiaren bisitak jaso dira.

Eremu honetako jardueraren parte handi bat nazioarteko programa eta proiektuetan parte hartzera zuzendu da, gehiena Europaren testuinguruan, adibidez, UPRIGHT proiektua, TESTACOS proiektua, 4DHEALING proiektua, HELINET mugaz gaindiko lankidetzak proiektua, edo TRAIN proiektua. Era berean, lan bateratu sakona egin da Ipar Eirerekin, Eskoziarekin eta beste nazio eta eskualde batzuekin EIP-AHA sarearen barruan ekintzen eskala faktorea indartzeko.


Azkenik, osasun teknologiaren ebaluazioaren arloan Euskadiren eta Tunisiaren arteko Elkar ulertzeko Memorando (MoU) bat izenpetu izana azpimarragarria da.

3.25 Hizkuntza politika

Hizkuntza Politikaren eremuan helburu nagusia euskara nazioartekotzea da, eta Etxepare Institutua da ekintza guztien aitzindari dabilena Euskadiko kultura sektoreekin elkarlanean.

2018an, eremu honetan egin ziren jarduerak nagusirik gehienak **Europaren testuinguruan (V4)** txertatuta egon ziren.

31. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Hizkuntza Politikaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Ildo horretan, euskara protagonista izan zen Hizkuntzen Europako Egunean. Besteak beste, Europako Batzordearen Hezkuntzarako eta Eleaniztasunerako Urteko Foroaren esparruan

Euskadiren kasua aurkeztu zen. Gainera, Euskadi eta Akitania Berriaren arteko elkarlana euskararekiko nabaria izan zen Eskualdeen Batzordean egin zen konferentzian.


Horren osagarri, lan handia egin da NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity) sarearen barruan, eta parte hartu da UNESCOren Hizkuntzen Munduko Atlasean.

3.26 Segurtasuna

Nazioartekotzea, segurtasunaren eremuan, nazioarteko beste segurtasun agentzia eta erakundeekin alde biko harremanak ezartzea izan da, eta nazioarteko foro eta sareetan parte hartzea informazioa eta jokaera onak ikasteko.

2018an eremu honetan egindako jarduerarik gehienak **ezagutza atzitzera (V5)** bideratuta egon dira.

32. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Segurtasunaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


Ikuspegi horretatik, hainbat jardura egin dira, besteak beste, Fürfeldenbruck eta Dachauko Polizia Akademietara bisita (Alemania), New Yorkeko poliziakoei harrera Euskadin, edo ekitaldietan (Europako Poliziaren 21. Biltzarra Berlinen, ICE Totally Gaming azoka Londresen) eta proiektuetan (adibidez, POCTEFA MAREA proiektua) parte hartzea.

3.27 Justizia

BZk ikerketa-proiektuak bultzatzea eta justiziaren arloko topaketa zientifikoak eta profesionalak erraztea aurreikusten du, eta Oñatiko Soziologia Juridikoaren Nazioarteko Institutuari eginkizun garrantzitsua esleitzen dio.

2018 urtean, eremu honetako jarduerarik gehienak Euskadi **Basque Country marka bultzatu (V1)** eta sustatzera mugatzen dira.

33. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Justiziaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Ildo horretan, Latinoamerikako 10. ALAMFPYONAF Biltzarrera joan gara, 10th European Forum for Restorative Justice eztabaidagunera, eta Haur eta Nerabeentzako Justiziari buruzko Munduko Biltzarrera, Euskadi Basque Country marka kohesioari eta justizia sozialari lotuta zabaldu den beste ekitaldi batzuek gain.


4 EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERAKO ANALISIA

EBCn Euskadi nazioartekotzeko eremu geografiko estrategikotzat jotzen diren herrialde eta eskualde multzoa ezartzen da. Lurralde horiek atzerriko euskal interesen parte garrantzitsuen kontzentratzen dute eta lehentasunezko arreta ematen zaie.

2018an zehar, Europa gailendu zen Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze jardueren eremu geografiko bezala. Izan ere, nazioartekotzeko jarduera nagusien % 71,04 kontinente honetako herrialdeetara zuzenduta egon dira edo herrialde horietan egin dira.

Europaren atzetik, Amerikako kontinentea gailendu zen, nazioartekotzeko jardueren % 19,36 bildu baitzuen, eta ondoren Asia (% 7,52), Afrika (% 1,6) eta Ozeania (% 0,48).

34. irudia. 2018an egindako nazioartekotze jardueren ehunekoa, kontinentearen arabera¹



Iturria: Geuk egin Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Egindako nazioartekotze ekintzak jaso dituzten herrialdeei dagokienez, EBCk lehenetsitako herrialdeak nabarmentzen dira: **Alemania, Frantzia eta Erresuma Batua Europan; eta Estatu Batuak, Argentina eta Mexiko Ameriketan.** Beste alde batetik, eta lehentasunezko eskualdeei dagokienez, **Akitania-Iparralde, Eskozia eta Bavaria**, guztiak Europako kontinentean, jardueren zati handi bat bildu zuten.

¹ Jarduera nagusiak bakarrik sartzen dira, eta berariaz kontinente bakar batera zuzendu ez direnak edo bakar batean egin ez direnak baztertu egin dira gainerako multzotik.

36. irudia. 2018an egindako nazioartekotze jardueren ehunekoa, eskualde lehenetsiaren arabera³



³ Eskualde lehenetsietako jarduera nagusiak bakarrik sartzen dira, eta berariaz eskualde bakar batera zuzendu ez direnak edo bakar batean egin ez direnak baztertu egin dira gainerakoen multzotik.

4.1 Herrialde lehenetsietako jarduera

Herrialde lehenetsietako jarduera batez ere zentratu da **Alemanian, Frantzian eta Erresuma Batuan, Europan; eta Estatu Batuetan, Argentinan, Mexikon, Kolonbian eta Txilen, Ameriketan**, nahiz eta EBCK zehaztutako herrialde lehenetsi ia guztietan egin diren jarduerak.

Alemanian, Euskadi Basque Country marka suspertu da eta interes multisektorial euskaldunak babestu dira azoketan eta biltzarretan aurkez egonik, adibidez ITB (Turismoa), REISEN (Turismoa), Eurobike (Enpresak Nazioartekotzea), MEDICA (Osasuna), Fruitlogistica (Azpiegiturak eta Garraioak), edo Europako Poliziaren Nazioarteko Biltzarra (Segurtasuna). Gainera, Berlingo ekintzailtza sistemaren aurrean erreferentziako ekinbideak aurkeztu dira, esate baterako, Euskadi Bonu Iraunkorra (Ogasuna eta Ekonomia) edo BIND 4.0 Programa.

Erresuma Batuan, zenbait ekitalditan Euskadi Basque Country marka suspertzera bideratu dira ahaleginak, besteak beste, WTM edo Taste of London (Turismoa) edo Taste of London (Turismoa), edo ICE Totally Gaming (Segurtasuna). Gainera unibertsitateen eta ikerketaren arloan harremanak bultzatzen jarraitu da Oxfordeko Unibertsitatearekin Basque Visiting Fellow programaren bidez.

Frantzian, egin den jarduera mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzan zentratu da, bereziki Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa euro eskualdearen barruan. Lurraldearen egituraketa eta lankidetzaren areagotzeko asmoz, hala nola, Europako Batzordearen DG MOVE Zuzendaritza Nagusian Euskadik eta Akitania Berriak izandako bilera, edo Korridore Atlantikoaren foroetan egin den lan sakona. Horren osagarri, Euskadiren irudia eta bere eragileena bultzatu da ekitaldi sektorialetan, adibidez ILTM, MAP edo Taste of Paris (Turismoa), edo SIAL (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura). Gainera, alde biko harremanak bultzatu dira Frantziarekin. besteak beste, Frantziako enbaxadari Lehendakaritzan harrera eginaz (Kanpo Harremana), edo Sophie Cluzel Frantziako ministroarekin bilera eginaz (Gizarte Politikak).

Iparraldeko herrialdeetan, Suedian eta Finlandian egindako lana nabarmendu zen. Suediaren kasuan, erakundeen eta enpresen loturak estutu ziren zenbait ekinbiderekin, adibidez, Skaneko enpresen eta erakundeen ordezkartza bati Invest in the Basque Country aurkeztuz (Enpresak Nazioartekotzea) edo Tokiko eta Eskualdeetako Agintarien Suediako Elkartarekin bilera eginez (Gizarte Politikak). Gainera, Suediako Kalitate Agentziak TKNKA bisitatu zuen (Lanbide Heziketa) eta Helsinkiko Unibertsitatean euskararen eta euskal kulturaren irakasletzarako deialdi bat egin zen (Kultura). Finlandiaren kasuan, herrialde honetako Berdintasun Ministroareki bilera bat mantendu

zen NBERen Emakumearen Kondizio Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordearen 62. saioan, eta bestalde EfVETen (European Forum of Technical and Vocational Education and Training) urteko konferentziaren Industria 4.0 talde tematikoan euskal-finlandiar lidertza bezalako kolaborazioak ezarri ziren.

Bestalde, EBCn jasotako beste herrialde lehenetsi batzuetan ere egin ziren jarduerak.

Ameriketako Estatu Batuei dagokienez, erakunde bilerak izan ziren, adibidez, Lehendakariak Nevadako Gobernadorearekin eta AEBetako enbaxadorearekin, eta euskal interesak suspertu ziren erreferentziako ekitaldietan parte hartuz (World Trade Week NYC, BIO International Convention, Smart Cities New York eta abar), eta Estatu Batuetako unibertsitateetan euskara eta euskal kulturaren katedren bitartez.

Argentinan, Lehendakariaren bidaia ofiziala nabarmendu zen, non agenda instituzionalaren barne Nazioko Presidentearekin Entzunaldi ofiziala eta Euskal Aste Nazionalan parte hartzea nabarmentzen diren. Euskadiren irudia ere hainbat ekitalditan proiektatu zen, esaterako FIT azokan (Turismoa), edo Gernikako bonbardaketari buruzko erakusketak antolatuz eta Emakunderen kanpainekin "Begiradak Aldatzen" (Kanpo Harremanak).

Mexikon, garatu diren jarduerak batez ere erakunde loturak estutzera eta euskal expertisa suspertzera bideratuta egon dira. Erakunde loturak indartu dira Guanajuatoko Enpleguaren eta Lanbide Heziketaren idazkariordearen eta TKNKA Institutuaren arteko Elkarlan Akordioa izenpetzearekin, edo gizonen eta emakumeen berdintasunaren arloan Mexikoko Gobernuarekin Elkarlan Memorandumaren eginez. Gainera, euskal mahasti-ardogintza sektorea bultzatu da (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura), eta Nuevo Leon estatuan Industria 4.0 gaiari burututako aurkezpenak burutu dira.

Txilen, Lehendakariak egin zuen bidaiaren agenda ofizialean Errepublikako Lehendakariarekin edo Senatuko Presidentearekin izandako bilerak nabarmentzen ziren. Erakunde loturak estutu ziren Irekiaren eta Lehendakartzako Idazkaritza Nagusiaren artean Gobernu Irekiaren eta Gardentasunaren arloan akordioa egiteko prestalanak hasiz, eta Emakunderen eta Txileko Berdintasun Ministerioaren arteko akordioarekin, eta bisitak eginez, adibidez Etxebizitza eta Hirigintza ministroak Euskadira egin zuena.

Kolonbian, trukeak egin ziren ikuspegi instituzionaletik, esaterako, Caldasko Gobernazioak Euskadira egin zuen bisita, edo Lan eta Justizia sailburuak Kolonbiara egin zuen bidaia. Gainera, Asmoen Gutun bat izenpetu zuten Kolonbiako Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak eta Eusko

Jaurlaritzak herritartasunerako, bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzaren gaietan elkarrekin jarduteko.

Kanadan, jarduerak Quebecekiko harreman sektorialeiei bultzada ematen zentratu ziren, hurrengo atalean xehetasunez emango diren harremanak.

Guatemalaren kasuan, Osasun eremuan herrialdearekin izandako elkarlan estua nabarmendu zen, esperientzia eta politika publikoak partekatzeko; eta Peruri dagokionez, trukeak egin ziren, batez ere Segurtasunaren eremuan.

Asiako kontinentean, EBCK Txina, Japonia eta Indiako herrialderan jartzen du begirada, nazioarteko esfortzuak lehentasunez kontzentratzeko.

Txinaren kasuan, Euskadi suspertzeko esfortzua gailendu zen enpresa nazioartekotzearen eremuan, zenbait ekitaldiren bidez, esate baterako, Shanghai Expo Development Cooperation Forum, China Internacional Import Expo, Rail+Metro China, edo china International Industry Fair. Gainera, harreman instituzionalak estutu ziren Qiandengeko (Kunshan) alkatetzarekin edo Jiangsu probintziako Atzerri Gaietarako arloarekin izandako bileren bitartez.

Japonian, Ekonomia Garapen eta Azpiegitura sailburuak Japoniako merkatuak euskal enpresetarako duen potentziala esploratzeko egin zuen bisita instituzionala nabarmendu zen. Gainera, eta inbertsioak erakartzearen ikuspegitik, Lean Manufacturing-erako Eu-Japan ekinbideko Europako enpresei aurkezpen bat egin zitzaien (Enpresak Nazioartekotzea) eta Japoniako enpresen ordezkari bati ere bai, eta, gainera, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearekin eta klusterrekin elkarlanean Euskadin inbertsioak egiteko interesa izan lezaketen Japoniako enpresen azterketa bat egin zen.

Indian, Enpresak Nazioartekotzearen eremutik egin ziren jarduerak nabarmendu ziren, Euskadiren interes sektorialak suspertzeko ekitaldietara (Delhi azoka, REI azoka) eta eragile interesgarriekiko bileretara, hots, World Trade Centre – Navi Mumbai, joanda.

Azkenik, **Hegoafrikaren** kasuan, Afrikan lehenetsitako herrialde bakarra denez, herrialdeko enbaxadorearekin bilera bat egin zen (Kanpo Harremanak).

4.2 Herrialde lehenetsietako jarduera

Eskualde lehenetsien kasuan, Europako kontinentean burututako jarduera nabarmendu zen, batez ere Akitania-Iparraldean (Frantzia), Eskozian (Erresuma Batua) eta Bavarian (Alemania).

Akitania-Iparraldearen kasuan, 2018an aurrera egin da lurraldearen mugaz gaindiko kohesioan eta egituratzean, batez ere Euskadik Akitania Berria–Euskadi–Nafarroa LLETen eta Pirinioetako Lan Komunitatearen bidez (Kanpo Harremanak). Ikuspegi sektorialetik, mugaz gaindiko proiektuak bultzatu dira, esate baterako DENEGAZ gazta industrian berrikuntza sare bat sortzeko (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura) edo ONCONAEN onkologia geriatrikoari buruz (Osasuna), eta erreferentziako ekitaldietan parte hartzea suspertu da, hala, Fest'Arts Jaialdia (Kultura) edo Basques à Bordeaux (Turismoa).

Bavarian, lotura instituzionalak estutzen jarraitu da, esaterako Bavariako Enpresa, Energia eta Nekazaritza ministroaren bisita (Enpresak Nazioartekotzea), edo Bavariako Barne Arazoetako ministroarekin izandako bilera (Segurtasuna).

Antzera, **Eskozian**, sektoreko sustapenean egin da lan, adibidez, Kulturaren eremuan, Euskal Film Laburraren Omenaldia antolatzen Eskozian, edo Osasunaren eremuan, Europako erakundeetatik bultzatutako programetan eta proiektuetan Euskadik eta Eskoziak elkarrekin parte hartuz.

Flandriaren kasuan, hango ministro lehendakariak Euskadira egin zuen bisita nabarmendu zen, gobernu biek 2015eko ekainean izenpetutako Asmoen Deklarazioaren esparruan. Bilerak egin ziren Lehendakariarekin, Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuarekin eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin ; bisitak AZTIra (ingurumena eta klima aldaketa), Bizkaiko Parke Teknologikora eta Fabrikazio Aurreratuko Zentrora (Industria 4.0), Bilboko Arte Eder Museora. Kulturaren arloan, Flandriako Sormen Barrutiaren ordezkariak Euskadin egindako lan misioa nabarmendu zen.

Galesi dagokionez, 2018an Lehendakariak bilera bat egin zuen Galesko Ministro Nagusiarekin, eta bere exekutiboko Finantza Idazkariaren bisita izan zen, Euskal Kontseilariarekin elkarriketatu zena. Osasunaren eremuan, balioan eta zahartze aktiboan oinarritutako osasun arretaren arloan elkarlana garatzeko lanean hasi zen. Elkar ulertzeko Memorandum bat izenpetu zuten Euskadi eta Galesen izenean Lehendakariak eta Galesko Lehen Ministroak.

Ameriketako kontinentean, Cundinamarca eta Quebec eskualde lehenetsietan jarduerak egin ziren.

Cundinamarca, Euskadi Basque Country marka sustatzeko ekitaldiak babestu ziren, esate baterako, Expochess, eta harreman instituzionalak bultzatu ziren, bai maila nazionalean bai sailaren barruan, Bogotako Lan eta Justizia kontseilariaren bisitaren bidez, adibidez.

Quebecen, areagotu egin dira trukeak maila instituzionalean eta sektorialean, bereziki kulturaren arloan. Kanpo Harremanen eremuan, Quebeceko Nazioarteko Harremanetarako eta Frankofoniarako ministrordearen Euskadirako bisita antolatu zen, eta kulturaren eremuan Quebecera bisita egin zuen Kultura sailburuak eta Etxepare Institutuko zuzendariak, McGill Unibertsitatearekin elkarlan hitzarmen bat izenpetzeko.

Queretarori dagokionez, nazioarteko akordioetan eta ekintzetan euskal eragileei emandako babesa nabarmendu zen, Leartikerri emandakoa, kasu, IKT eremuan elkarlan posibilitate berriak identifikatzeko.

2018an ez zen egin nazioartekotzeko jarduerarik Minnesotan edo Ternua eta Labradorren, ezta KwaZulu-Natal hegoafrikar eskualdean ere, EBCK eskualde estrategikotzat jo arren.

Asiaren kasuan, **Jiangsun** areagotu egin dira erakunde harremanak, Qiandeng-Kunshango alkatetzarekin, Wuxi Huishan Development Zone-rekin edo Jiangsu Probintziako Atzerri Gaietarako arloarekin bilerak eginez, Enpresak Nazioartekotzearen eremuaren barruan egin ere.

5 JARDUERAREN MONITORIZAZIOA

EBCK egindako nazioartekotze jarduerak hierarkizatzen dituen eta jardueren betetze maila global neurtzen duen jardueren Monitorizazio Sistema bat ezartzen du.

2018an Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak guztira 1.258 nazioartekotze jardura egin zituen, eta horietatik 770 jardura nagusi zenbatu dira guztira monitorizazio sistemaren barruan.

6. taula. Nazioarteko jardueraren monitorizazio sistema, egindako jarduerak "nagusietan" eta "lagungarri edo bigarren mailakoetan" zatitzen dituen

TIPOLOGIA	AZPITIPOLOGIA	AZPIKATEGORIAREN DESKRIPZIOA	GUZTIRA
NAZIOARTEKO PROIEKTU ETA SAREEKIKO ELKARLANA ETA PARTAIDETZA	JARDUERA NAGUSIA	Bultzada eta benetako partaidetza, Euskadiren protagonismoarekin, nazioarteko proiektu eta sareetan.	161
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Nazioarteko proiektu eta sareetan elkarlan puntuala egitea edo gonbidatu moduan parte hartzea, rol protagonistarik gabe, edo sare eta proiektuekin erlazioatutako ekitaldietan edo informazio saioetan partaidetza prospektiboa izatea.	156
NAZIOARTEKO OSPAKIZUN, ARGITALPEN ETA FOROETAN AKTIBOKI PARTE HARTZEA	JARDUERA NAGUSIA	Nazioarteko ekitaldi, ospakizun, eztabaidagune eta argitalpenak antolatzea edo horietan parte hartzea erakustokiarekin, hitzaldiarekin edo argitalpenarekin.	168
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Ekitaldietan parte hartzeagatik bilerak eta lan saioak egitea, eta euskal presentzia duten baina Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak antolatu ez dituen ekitaldietara joatea	169
ETORKIZUNERA BEGIRAKO EKITALDIETARA/KONFERENTZETARA JOATEA ETA/EDO ALDE ANITZEKO BILERETAN PARTE HARTZEA	JARDUERA NAGUSIA	Etorkizunera begirako ikuspegiarekin ekitaldietara/konferentzietara joatea eta/edo alde anitzeko sareen bileretan parte hartzea.	219
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Alde biko bilera puntualetan, etorkizuneko ekintzak prestatzeko bileretan, eta ekitaldi eta konferentziekin erlazioatutako bileretan parte hartzea, eta prestakuntza ikastaroetara joatea.	30
ATZERRIRAKO BIDAIAK ANTOLATZEA	JARDUERA NAGUSIA	Atzerrirako ordezkariak eta misio zuzenak antolatzea.	60
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	BTIren kanpo sareak edo ordezkariak eta misio zuzenekin erlazioatutako Eusko Jaurlaritzaren kanpo ordezkariak izandako bilera puntualak.	47
ATZERRIKO ORDEZKARITZEN HARRERAK ETA/EDO BILERAK EUSKADIN	JARDUERA NAGUSIA	Euskadin atzerriko ordezkariak harrera egitea.	90
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	BTIren atzerriko sarean edo Eusko Jaurlaritzaren atzerriko ordezkarietara erakundeekin bilerak egitea.	32
NAZIOARTEKOTZEAREN ESPARRUAN FINANTZATZEKO ETA DIRUZ LAGUNTZEKO PROGRAMAK BULTZATZEA	JARDUERA NAGUSIA	Nazioartekotze ekosistemako eragileei begira finantzaketa eta diru-laguntza programak martxan jartzea.	72
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Europako finantzaketa proiektuetarako hautagaizak prestatzeko edo informatzeko ekintzak, eta SPRIren atzerri sareko euskal enpresen zerbitzu zorroarekin zerikusia duten jarduerak.	54
JARDUERA NAGUSIAK GUZTIRA			770
GAINERAKO JARDUERAK GUZTIRA (JARDUERA LAGUNGARRI EDO BIGARREN MAILAKOAK)			488
NAZIOARTEKOTZEKO JARDUERAK GUZTIRA			1258

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Egindako jarduera nagusien kopuru osoa kontuan hartuta, hau da, 770 guztira, 2018an **2020ko EBCn 2018-2020 hirurtekorako aurreikusitako jarduera guztien % 40,84** bete da.

7. taula. Nazioartekotze jardueren betetze-ehunekoa, 2020ko EBCn ezarritako jomugetan oinarrituta

TIPOLOGIA	DESKRIPZIOA	2018KO JARDUERAK	JOMUGA 2020	BETETAKO %
NAZIOARTEKO PROIEKTU ETA SAREEKIKO ELKARLANA ETA PARTAIDETZA	<i>Alde biko edo alde anitzeko nazioarteko proiektuen barruan Euskadik duen protagonismoan eragiten duten jarduerak, eta nazioarteko sareen barruko jarduerak ere bai.</i>	161	400	% 40,3
NAZIOARTEKO OSPAKIZUN, ARGITALPEN ETA FOROETAN AKTIBOKI PARTE HARTZEA	<i>Nazioartean garrantzia duten plataformetan, ospakizun, argitalpen edo eztabaidaguneetan parte hartzea Euskadiren protagonismoarekin (antolaketa, erakustokia edo hitzaldia).</i>	168	350	% 48,0
ETORKIZUNERA BEGIRAKO EKITALDIETARA/KONFERENTZIETARA JOATEA ETA/EDO ALDE ANITZEKO BILERETAN PARTE HARTZEA	<i>Ekitaldi, bilera, eztabaidaguneetan ikuspegi prospektibo batekin eta rol protagonistarik gabe parte hartzea.</i>	219	450	% 48,7
ATZERRIRAKO BIDAIK ANTOLATZEA	<i>Euskadiren kanporanzko proiektioari eragiten dioten nazioarteko misio, ordezkaritza eta bidaiak antolatzea.</i>	60	200	% 30,0
ATZERRIKO ORDEZKARITZEN HARRERAK ETA/EDO BILERAK EUSKADIN	<i>Euskadi bisitatzen duten nazioarteko ordezkaritzak hartu, abegi egin eta artatzea.</i>	90	250	% 36,0
NAZIOARTEKOTZEAREN ESPARRUAN FINANTZATZEKO ETA DIRUZ LAGUNTZEKO PROGRAMAK BULTZATZEA	<i>Euskadiko nazioartekotze ekosistemako eragileei begira finantzaketa eta diru-laguntza programak martxan jartzea.</i>	72	250	% 28,8
GUZTIRA		770	1900	% 40,52

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

6 JARDUERAREN ERAGINA

Estrategiaren pisuari eusten dioten eremu tematikoetako inpaktua neurtzeko adierazleak dauzkan **Aginte Taula** bat du EBCK: **Kanpo Harremanak, Enpresak Nazioartekotzea, Kultura, Turismoa, Garapenerako Lankidetzeta eta Kirola**. Eremu horietan oinarrituta, Euskadiren nazioartekotzearen egoeraren eta eboluzioaren argazki bat emango duten neurketak egingo dituzten adierazle batzuk hartzen dira.

Analisi hau ondorengo ekitaldietan adierazleen bilakaera aztertuz aberastuko bada ere, ondoren 2018ko datuak aurkezten dira:

8. taula. 2018 urterako 2020ko EBCren adierazleen taula

EREMU TEMATIKOA	ADIERAZLEA	NEURRI UNITATEA	2018KO DATUAK	ITURRIA
KANPO HARREMANAK	▪ Eusko Jaurlaritzak izenpetutako nazioarteko akordioak	Kop.	9	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
	▪ Eusko Jaurlaritzaren partaidetzako nazioarteko sareak	Kop.	38	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEA	▪ Ondasunak esportatzeko EAren joera	%	% 32,40	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
	▪ Enpresa esportatzaile erregularrak > (1 K€) ⁴	Kop.	7.337	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
KULTURA	▪ Euskarako eta euskal kulturako katedra eta irakurletza sareak munduan	Kop.	43	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
	▪ Parte hartzen den nazioarteko kultura ekitaldiak (lanbidekoen azokak) ⁵	Kop.	-	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
TURISMOA	▪ Gastu turistikoa guztira (hartutako turismoa) BPGd-aren gainean ⁶	%	-	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
	▪ Euskadira heldutako turistak ⁷	Kop.	3.673.431	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
GARAPENERAKO LANKIDETZA	▪ Garapenerako lankidetzarako laguntza / erabilitako aurrekontua ⁸	%	% 0,429	Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia
KIROLA	▪ Olinpiadetan parte hartzen duten euskal kirolariak ⁹	Kop.	5	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

⁴ EBCn "Enpresa esportatzaile erregularrak > 50 k€" jartzen badu ere, Ekonomia Garapen eta Azpiegitura Sailak enpresa esportatzaile erregularrak > 1 k€ datua darabil, eta horrela sartu da Adierazleen Taulan.

⁵ Datua ez dago eskuragarri.

⁶ Turismo Sailaren datuen arabera, EUSTATEk ez du argitaratuko 2018ko Turismo Kontu Satelitearen daturik 2020ko urtarrilera arte, argitaratutako azken datua 2017koa da.

⁷ Establezimendu arautuetan ostatu hartutako turistak bakarrik kontatzen dira.

⁸ EBCK "Garapenerako lankidetzarako laguntza / BPGd" jartzen badu ere, Euskadiko BPGd neurtzea konplexua denez, magnitude horren ordez gobernu aurrekontua erabili da: "Garapenerako lankidetzarako laguntza / erabilitako aurrekontua".

⁹ Neguko Joko Olinpikoak, Pieonchangen 2018an.

7 ONDORIO NAGUSIAK

2020rako Nazioartekotze Esparru Estrategia- Euskadi Basque Country Estrategia- EBC **Euskadiren nazioarteko jarduera orientatzeko, kudeatzeko eta jarraipena egiteko gobernu eremu guztien tresna integral eta horizontal** gisa finkatuta dagoela, 2018 izan da 2014ko jatorrizko **Estrategia eguneratuta** jokoan jartzen zen lehen ekitaldia, uneko testuingurura eta beharretara egokitzeko 2017an burutu zen hausnarketa estrategikoaren prozesuaren emaitza dugun estrategia eguneratua, hain zuzen.

Eguneratzearen berritasunetako bat **Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze jarduera Monitorizatzeko Sistema** bat martxan jartzea izan da, Estrategiaren jarraipena 2020 urterako ezarritako jomugen arabera egiteko egokiak diren jarduerak hierarkizatzeko eta hobeto hautatzeko aukera ematen duena.

Ilido horretan, eta 2018an, **jardueraren betetze maila oso ona izan da. 2018-2020 hirurtekorako aurreikusi den jardueren betetze mailaren batzbestekoa 40,52% izan da. Monitorizazio-sistema osatzen duten jarduera-tipologia bakoitza aztertzen hasten bagara, jarduera-maila % 30 eta % 48 bitartean ibili da 2018 lehen urte honen amaieran, 2020 amaierarako ezarritako jomugen aldean. Bereziki nabarmendu ziren alde anitzeko sareetan parte hartzea eta ekitaldietara modu prospektiboan joatea (beteta % 49 / 2020), nazioarteko ekitaldi, argitalpen eta foroetan aktiboki parte hartzea (beteta % 48 / 2020), eta nazioarteko proiektu eta sareetan elkarlanean aritzea eta parte hartzea (beteta % 40 / 2020).**

EBC-aren eguneratzeak nazioartekotze bektoreen doiketa bat ezarri zuen, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioarteko jarduera bost bektoretan antolatzen dutenak. Kodifikazio berri hau erreferentziatzat hartuta, **2018an nagusi izan ziren 2. bektorera (Interes sektorialak suspertu eta bultzatzea) bideratutako jarduerak**, guztira 276 jarduera (% 36), jarraian 1. bektorekoak (Euskadi Basque Country marka proiektatzea), 228 jarduera (% 30), 4. bektorekoak (Europaren proiektuari laguntzea), 127 jarduera (% 16), 3. bektorekoak (Garapenerako erronka globalak konpontzen laguntzea), 74 jarduera (% 10), eta azkenik, 5. bektorekoak (Ezagutza atzitzea), 65 jarduera (% 8).

2018an 27 jarduera eremu egon dira, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioarteko jarduera besarkatu dutenak. Jarduera bolumenari dagokionez, eta aurreko ekitaldietan ohikoa izaten ari zenez, **Kanpo Harremanen (% 25), Enpresak Nazioartekotzearen (% 24) eta Kulturaren (% 8) eremuak nagusitu dira jarduera guztien artean.**

Jarduera eremu geografikoei dagokienez, **Euskadiren nazioartekotze jarduerak egiteko Europak jarraitzen du ingurune lehenetsia izaten**, jardueren % 71 bildu baitu, eta jarraian Amerika (% 19), Afrika (% 1,6) eta Ozeania (% 1 baino gutxiago).

Beste alde batetik, **Estrategian lehenetsi diren herrialdeak jarduera kopuru handiena jaso dutenak dira**: Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua Europan (% 11,7na); eta Ameriketako Estatu Batuak (% 5,7), Argentina (% 4,7) eta Mexiko (% 4,1) Ameriketan. Beste herrialde lehenetsi batzuetan gutxiago jardun da, Asiakoetan esaterako (Txina nagusi), eta Hegoafrikan.

Eskualde lehenetsiei dagokienez, bereziki **Akitania-Iparralderekin egindako mugaz gaindiko lankidetzarako ekintzak** gailendu ziren, eskualde lehenetsietarako egin ziren ekintzen % 38,3 jaso bai zuen, eta jarraian Eskozian (5 17), Bavarian (% 12,8), Galesen (% 8,5), Quebecen (% 8,5), Flandrian (% 8,4), Cundinamarcan (% 6,4) eta Queretaron (% 2,1) egindako jarduera.

Azken finean, 2018an aurrera egiten jarraitu da EBCn ezarritako ikuspenean oinarrituta, 2017an burutu zen hausnarketa estrategikoaren emaitza izan den helburu, sektore, eremu tematiko eta lehentasun geografikoen berrantolaketa berriarekin. Ildo honetan, **2020rako ezarritako jomugei begira, jarduera modu eraginkor eta positiboan betetzea** lortu da, Euskadiri eragile globalaren posizioa emateko, *“Europaren eraikuntzan espazio berekia duela, Herrialde kohesionatua, erakargarria eta lehiakorra, bere berezitasunagatik, giza garapen iraunkorraren maila handiagatik aitortua, solidarioa, munduari irekia eta kanpoko euskal gizataldearekin estu konektatua”*.